


# uk

156. zenbakia / 2009ko maiatzaren 6a



# Getxoko leku izenak

## ezagutu, ikasi



## Ibilbide Toponimikoak 2009

Zelan deitzen da toki hau? Zer esan nahi du horrek?  
Zergatik deitzen da hau horrela? Ezagutzen dituzu Getxoko toki izenak?

### Udaberri honetan, 9 ibilbidetan, ezagutu Getxoko toponimia.

Martxoak 17	18:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aihoa	3,6 Km
Martxoak 27	18:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3,4 Km
Apirilak 1	19:00	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu Zaharrean hasita	1 Km
Apirilak 7	19:00	Bolua-Santa Koloma-Bolua-Aihoa	2 Km
Apirilak 21	19:00	Telletxe-Ereaga-Arrigunaga-Aixerrota-Bidezabal	3 Km
Apirilak 30	19:00	Bidezabal-San Inazio-Neguri	3 Km
Maiatzak 5	19:00	XX. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu Zaharrean hasita	1 Km
Maiatzak 13	19:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aihoa	3,6 Km
Maiatzak 21	19:00	Andra Mari-Sakuskune-Diliz-Andra Mari	5,9 Km
Maiatzak 29	19:00	Andra Mari-Diliz-Galea-Andra Mari	5,7 Km
Ekainak 1	19:00	Bizkaia Zubia-Zugatarte-Ereaga-Igeretxe	4,1 Km
Ekainak 9	19:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3,4 Km
Ekainak 17	19:00	Telletxe-Ereaga-Arrigunaga-Aixerrota-Bidezabal	3 Km

### Ibilbideak euskaraz izango dira



Eskatu informazioa Udal Turismo Bulegoan edo deitu 688 635 350.  
Izena eman behar da telefono honetan: 688 635 350



## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkarte

HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37  
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmingua, Maitane Nerekan,  
Ainhoa Lores

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Zortza Vega

KOLABORATZAILAKE: Jorje Perez, Bittor Egurola,  
Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta  
Bizarra Lepoan Euskaraz eta

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel

PUBLIZITEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



### ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



TRATU TXARREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA:  
900 940 111

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Internet Kafe, Telletxe Plaza.
7. LEHEN ETA ORAIN. Areetako Kale Nagusia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Leonor Sanchez Bilbao, Getxo.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.  
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Graffitiak.
28. ARGAZKIA. Bizkaiko Zubia.
30. BERBETAN. Itziar Laka.
34. FOTOGRAFIA. Sammy Baloji, GETXOPHOTO.


### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. XV. FANT zinemaldia.
43. MUSIKA. Subversion X, disko-aldizkari barria. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Euskal ipuinen bilduma. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Ugeraga Txirindularitza elkarteko neskak.
46. ELKARRIZKETA. La Patera Rosa, Iñigo Iraitza "Iru".

### AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Kaset, Algorta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Arenas Fútbol Taldea, Bittor Egurola.
54. AITORMENAK. Garikoitz Udabe .


Azala: Sammy Baloji




30 Itziar Laka

### Berbetan

Hizkuntzaren prozesamendu eta itxurapenari buruz berba egin digu hizkuntzalari bilbotarrak



11 Leonor Sanchez Bilbao



54 Garikoitz Udabe



## Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak

www.renaultleioa.com

Iparagirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA  
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42



**Leihatila**

&gt; Aiala Elorrieta

**Irlak**

UK-tik UK-ra, United Kingdom-etik, Uribe kostara. Irla batetik idazten dut beraz. Pentsa genezake irla zer den definitzea erraza dela. Stop! Australia, adibidez, zenbait sailkapenetan irletatik kanpo geratzen da. Beste batzuk aldiz, kontinenteak ere irla kontsideratzen dituzte. Joan den astean, 5 urteko neska bat ezagutu nuen, hemen, Newcastle-en. Bere altxorretako bat erakutsi zidan: kartoiz egindako irilatxo bat, mendi, kobazulo eta erreka bategaz. Pertsona bakarra kabitzen da bere irlan, zutik, noski. Etzateko lekuri ere ez dauka. Berarentzako leku magikoa! Itsasoz inguratuta! Oso argi du bere buruan irla bat zer den, eta ez luke inola ere Australia irlen zerrendan sartuko. Izan ere, serio-serio esan zidan: Ni ez naiz sekula irla batean egon! Baina, ez du inoiz telebistan eguraldiaren mapa ikusi? Irla handia ageri da, Britainia Handia, eta mendebaldean, irla txikiagoa. Irla txiki horren zati bat, txiki bat ikusten da koloreztatuta: Ipar Irlanda. Irla eta erdi, konposizio zinez artifiziala. Mapak ez dira mutuak eta eguraldiarena, ez da tresna makala. Eta tresna den heinean, eskuan duenak erraz alda dezake...

**gu geu****Gora San Isidro!**

Kanpotarentzat jauregiz betetako herri "pijoa" baino ez bada ere, Getxok badu oraindino landa gune garrantzitsua, Andra Mari auzoa, hain zuzen ere. La Ventan hasi eta Azkorriko hondartza arte heltzen da berde gune erraldoia; alde batetik, Algorta auzoagaz egiten du muga, eta bestetik, Berangoko herriagaz. Maiatzaren 15ean nekazarien zaindariaren eguna ospatuko dute Getxon: San Isidro. Meza berezia, dantza erakustaldia, idi-probak... ohiturari eutsiko diote getxoztarrek egun handi horren ospakizunean. Aurreko egunetan, kontzertuak, herri kirolak, herri bazkariak eta mota guztietako ekimen herrikoiak egingo dira; herriak eginda herriarentzat.

Polita da auzoetako jaiak eta ohiturak aurrera doazela ikustea. Baserritarrek aitzurra alde batera utziko dute egun batez, eta armairuko alkandora, gona eta praka eleganteenak jantzita, taloa, txistorra eta barkilloak jatera jaitsiko dira elizara. Ondoren, idiei oihu egingo diete probalekuan.

Gizarte "likido" honetan (horrela esaten diote soziologoek), non erreferenteak eta ereduak aurkitzea eguneroko buruhauste bilakatu den, polita da ikustea bizitza lasai hartu eta betikoari eutsiz bizitzen jarraitzen duenik badagoela. Hori noski, ez dugu esparru guztietan aplikatu gura.

**UK-ko lantaldea****Iritzia**

Hizkuntzaren erabilera desegokiei buruz berba batzuk bidali dizkigu oraingoan Amaia Arriagak.

**Andre ala andereño?**

Bat. Udalean lanean hasi berri den gizonezko batek deitu zidan aurreko batean bere bulegora, elkarrekin landu beharreko gai baten inguruan berba egiteko. Sartu eta "Egun on Amaia andrea, ala andereñoa esan behar dut? Ez bat eta ez bi, 'zeuri zelan esango dizut, jauna ala jauntxoa?'"

**«Geure esku dago egoerak iraultzeko bultzada ematea»**

hortxe trabatu ginen. Gizonezko bati ez ziola horrelako galderarik egingo eta hizkera sexista erabiltzea leporatu nion nik.

Berak, baina, hizkuntzaren baliabide bat zuzen erabiltzeko ahalegina besterik ez zuen ikusten, eta normalizat jotzen zuen andre/andereño aukeraz baliatzea. Kontua da oraindik, 'andereño' horrekin, ezkongabe izatea markatzen digutela, errespertzuko tratamendua izan behar lukeenaren gainetik. Eta, jakina, 'normala' da andrazkoei zuzenduta, baina gizonezkoei zuzen-

erantzun nion, seguruenik hartu-emanari hasiera emateko modu arin bat besterik bilatzen ez zuen gizonari. Eta beste ezer baino lehen

tzekotan berehala antzematen da mespretxu puntua, 'jauntxo' esatean nire berbalagunak sentitu zuen bezala.

Bi. Eta normaltasunaren barruan sartuko da, akaso, egoera formal batean, duela bi hilabeteko Plenoan, udaleko gizarte langileez ari zen zinegotziak Departamentuko neskatoak (chavalas) guztiz lanpetuta zebiltzala eta antzekoak esatea. Hiruzpalau aldiz aipatu zituen "neskak" eta "neskatoak", behin ere ez teknikari edo horrelakorik. Urteetan ez dut sekula ere entzun "Idazkaritzako mutilak hau egin du" edo "Hirigintzako mutilek Batzordean parte hartu dute". Teknikariak eta teknikariek egindako txostenak aipatzen dituzte, gehienetan nolabaiteko begirunez aipatu ere. Baina andrazko langile gazteekin topo egin orduko, adio horien ganako eta horien lanarekiko begiruneari.

Hiru. 'Aizu, polit hori, ipini, mesedez, kulturakoekin.' Horixe udaletxean telefonoa hartzen duenak, ezagun zein ezezagunengandik egunero entzuten dituen esaldien modukoa. Deitzen duena gizonezkoa zein andrazkoa izan daiteke, baina andrazkoari eta bereziki andrazko gazteari hitz egingo diote horrela. Zer moduz honako erantzuna? 'Bai polita, bai, oraintxe'. Niri behintzat horixe eskatzen dit gorputzak, aurrean daukadana ohartarazteko modurik zuzenena delakoan. Ala lotsagabekeria da horrela erantzutea? Ez deitu duenarena baino handiagoa behintzat! Egoera 'normalak' hirurak ere, egunero bizi ditugun 'txikikeriak', bestea gure gainetik dagoela aditzera eman nahi digutenak, emakumeak, eta bereziki emakume gazteak, menpekotasunarekin lotzeko bideak. Eta geure esku dago egoerak iraultzeko bultzada ematea, txikikeria horiei duten garrantzia ematea eta bat bera ere pasatzen ez uztea. Berdintasun Planaren lehenengo ekintza izan beharko genuke.

**Amaia Arriaga**  
(LABeko delegatua Erandioko Udalean)



APirilaren 23a, ALGORTAKO TELLETXE PLAZA (GETXO)

**Internet kafe Geltoki plazan /** Apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatuko genuen mundu osoan. Egun horretan, baina 1616. urtean, hil ziren Miguel de Cervantes, William Shakespeare eta Garcilaso de la Vega; hortik dataren aukeraketa. Egun berezi hori oroitzeko, Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarin artistak gonbidatu zituen Getxoko Udalak. *Internet kafe* izeneko espektakulu barria ekarri zuten bikoteak; Uriberen olerkiek, Urdangarinen gitarra izan zuten lagun. Hurreraturakoen berotasuna sentitu zuten artistek Geltoki plazako karpatxoan. ○ / Argazkia: **Asier Mentxaka**

# No sabemos euskera... ¿Cómo podemos ayudar a nuestras hijas e hijos?

La charla se realizará en castellano  
Hitzaldia gaztelaniaz izango da

**Hitzaldia**

Eguna: 2009/05/11  
Dia: 11/05/2009

Ordua:  
Hora: 19:00

Lekua: Kultur Leioa Auditorium  
Lugar:

**Hizlariak**

**Julio Ibarra:**  
Desde la experiencia que da ser padre el periodista nos contará lo que a su familia le ha aportado la educación bilingüe. "Los hijos e hijas de los padres que no saben euskera pueden crecer en euskera sin ninguna dificultad. Además puedes aprender mucho de ellos. ¡Deja que te enseñen!"

**Iñaki Eizmendi:**  
Educador social con una amplia experiencia fomentando el bilingüismo. Nos dará algunas claves para ayudar a nuestro hijos e hijas en el aprendizaje del euskera.

Habrà servicio de guardería  
Haurtzaindegia egongo da.

**Gaiak**

- ¿Qué ventajas tendrán mis hijas e hijos si llegan a ser bilingües?
- No hablo muy bien euskera. ¿Debo hablarlo con mis hijos e hijas?
- No hablamos euskera, ¿cómo ayudarles a ser bilingües?
- Mi hijo estudia solo en euskera. ¿Tendrá dificultades para aprender castellano en el futuro?
- Nuestra hija mezcla el euskera y el castellano. ¿Qué debo hacer?



**Iraganez doa denbora\* beti / AREETAKO KALE NAGUSIA**

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



**uribitakora** > hoge metroko parkera

2009ko martxoa, Urkixobaso

Testua: **Miren Loizaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Iparragirre abila dela

Aske naiz berriz! Lortu dudanez  
balkoi txikitik atera,  
baina, hori bai, beti bezala  
hoge metroko parkera  
"Txuri, tira txiz(a) egin,  
(e)ta kaka ere berdin"  
egunero gauza bera,  
hiru ipurdi usaindu eta  
berriro buelta etxera.

Hara, usain hau ezezagun dut,  
(e)ta zu nor demontre zara?  
- "Ikatz" nauzu ni. - Ez zaitez izan,  
nire lurraldean traba  
ile ilunekoa  
(e)ta plako antzekoa  
arraroa zara bada...  
errespetatu gaitzen eta  
lagunak izango gara.

Lehen irudiak, lehen kontaktuak  
nahiz talka itxura izan  
berdintasunak, "txakurtasunak"  
elkartzea erraza zan  
itxura ahaztu eta  
garenari arreta  
"Txuri" eta "Ikatz" gisan  
batzen gaituen gizatasunak  
guztioak elkartu gaitzan.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal diezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) / tel.: 94 491 13 37**kirola** > *Forum Sport Kosta Trail* txapelketan izen-ematea zabalik

Portugalete eta Gorliz artean 30 kilometro egingo dituzte partehartzaileek

**Ekainaren 14an** ospatuko da Forum Sport Kosta Trail mendi lasterketaren IV. edizioa. Portugaleten hasi eta Gorlizan amaitzen den lasterketako antolatzaileek helburu bi bete gura dituzte aurtengo edizioagaz. Alde batetik, kirolaren praktika bultzatu gura dute; bestetik, minbizia duten haurrak lan egiten duen Aspanovas Elkartearentzat dirua batuko dute. Azken honentzat izango da izen-emateakaz batzen den diru guztia. Getxo, Sopela, Barrika, Plentzia eta Ermuamenditik pasako den eta 1464 metroko desnibela izango duen goi mailako mendi lasterketaz gain, familientzat eta zaletuentzat pentsatuta dauden beste ibilbide bi prestatu dituzte. Horiek biak, Sopolako Udaletik irten goizko bederatzietan. Izen-ematea ekainaren 7a arte egongo da zabalik, eta Forum Sport dendetan eta [www.forumsport](http://www.forumsport) web orrian egin daiteke. ○

**euskara** > 1173 kexa jaso zituen Behatokiak 2008an

Kexen %61 arlo publikoari zuzenduta egon da

**Hizkuntza** Eskubideen Egoera Euskal Herrian 2008 txostena plazaratu barri du Hizkuntza Eskubideen Behatokiak. Guztira, 1278 kasu bideratu zituzten iaz; horietatik, 1173 kexa, 51 "txalotze edo zoriontze" eta 31 kontsulta daude. Gipuzkoa eta Nafarroako herritarrak izan dira Euskararen Telefonora gehien deitu dutenak, %31,6 eta % 39,9 hurrenez hurren. Administrazio publikoak izan dira kexa gehien jaso dituztenak, %61, hain zuzen ere. Nafarroako Gobernuak (137), Eusko Jaurlaritzak (128), Espainiako Estatu administrazioak (124) eta Frantziako Estatuak (52) jaso dituztenak azpimarra daitezke. Kexa horiek guztiek, Hizkuntza Eskubideak urratzen jarraitzen direla uzten dute agerian. Neurriak hartu beharko dira, gauzak aldatu gura baditugu. ○

saiaz getaria



HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



..harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

[www.saiazgetaria.com](http://www.saiazgetaria.com) / [info@saiazgetaria.com](mailto:info@saiazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

## getxo > Euskalherria itsasontzi turistikoak agur esango digu udan



Euskalherriaren bidaietako bat, itsasadarrean barrena

**Eskolako** lagunak egindako txangoengatik, zein kanpotik etorritako lagunei ingurua erakusteko egindako bidaiatxoengatik ezagutzen dugu askok Euskalherria itsasontzia. 1998tik ezkerkialdea eta Getxo lotzen duen ibilbidea egin du itsasadarrean zehar eta milaka turista garraiatu ditu. Portugaleteko Boteroen Elkarteak lagunek ipini zuten martxan; udako hilabeteetan, Aste Santuko oporretan eta apirila eta maiatzeko asteburuetan egon da martxan orain arte. Azken udan 6.000 bidaiari baino ez da ibili (hastapenetan 15.000 inguruk erabiltzen zuten), nahiz eta Getxo eta Santurtziko turismo bulegoetatik horren erabilera sustatzen saiatu diren. Egoera ekonomiko kaskarrak eta erabiltzaile faltak, zerbitzua bertan behera utziko du udatik aurrera. Hala ere, boteroek aurreratu dutenez, maiatzean zehar Getxo eta Bilbo arteko ibilbideak egingo dituzte domekero. Proposamen honek arrakasta edukiz gero, aurrera egiten saiatuko dira. ○

## kultura > Ituren, Lantz eta Zubietako aratusteak Kultur Ondare



Joaldun taldea

**Seguruenik** inauteriak dira Zubietan gehien ezagutzen diren jaiak. Urtarrileko azkeneko astelehen eta martitzenean, eguerdi aldean, herri bietako joaldunak desfilean hasten dira, astelehenean Ituren eta asteartean Zubietan. Aski ezagunak dira Lantzeko aratusteak ere. Bertan, Miel Otxin, Ziripot, Zaldiko, Arotzak eta Txatxoak dira protagonista. Nafarroako Gobernuak hiru herri hauetako inauteriak Kultur Ondare izendatu barri ditu. Horrez gain, Mikel Ozkoidik eta Karlos Irujok, ospakizun horiei buruzko liburua eta bideoa argitaratu dute Panorama bildumaren barruan. Liburua, Kultur Ondare izendatzeko egindako txostenaren bertsio irakurterraza da; aratusteen nondik norakoak eta ospakizunaren garrantzi historikoa batzen ditu lanak. ○

[erretratua]



"Ni ez naiz sekula ume izan; txikitik nagusi izan gura nuen amari etxeko beharretan laguntzeko"

## Leonor Sanchez Bilbao > Getxoko historia bizia

**Bere ondoan** eseri eta arretaz entzun baino ez genuen behar izan Getxoko XX. mendeko historiako hainbat pasarte ezagutzeko. Uztailaren 1ean 96 urte beteko ditu Leonor Sanchezek; ez dira debalde joan urte horiek guztiak, altxor txikiak gordetzen dituen emakumea eraikitze balio izan dute. Bostgarrena baserrian jaio zen Leonor eta bertan bizi izan zen ezkondu arte: "Senarragaz etxe honetara etorri nintzenean 100 pezeta baino ez genituen ordaintzen". Zazpi urte zituela, eskola utzi eta beharrean ibili da ordutik: "Ni ez naiz sekula ume izan; txikitik nagusi izan gura nuen amari etxeko beharretan laguntzeko". Esnea hartu, Bilbora eroan eta Gran Viako familien artean banatu; Areetako etxeak garbitu eta umeak zaindu; Arrigunagako hondartzara heltzen zen ikatza hartu eta sutarako prestatu, animaliei jatekoa eman, borrokarako oilarrak prestatu... ez zegoen deskantsurako astirik. Gerra garaian Frantziara alde egin behar izan zuen seme bigaz: "Han geundela zaharrenak elgorria izan zuen. Nire ondotik eroan zuten, kusatuko gintuela uste zutelako. Sendatzeko rona baino ez zioten ematen. Ospitaletik atera eta Getxora ekarri nuenean, ron botila erosi nuen azkar sendatzeko". Beharra eta gerra garaiaz gain, San Isidro jaiak ere ondo gogoratzen ditu: "Horiek bai zirela jaiak, eta ez oraingoak". Liburuak betetzeko beste istorio lotu da airean. Urte askotarako! ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

**cianoplan** **Reprografía**  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Ariguo Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 067  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

Imprimatze eta plano kopiak •  
Karteak kolorez eta z/b •  
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •  
Fotokopiak kolorez eta z/b •  
Era desberdinetako koadernaketak •  
Plastifikazioak •  
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •  
ermarkaketak •



# San Isidro jaiak Getxon

Herriko jaietan **lehenengoak** eta guztietan **herrikoienak**, udalerraren **sorrera gunekoak... hilaren bigarren eta hirugarren asteburuetarako** muzin egin ezinako jai giroa



Sanisidroetako jai-batzordeko kide batzuk

**Urteko lehenengo jaiak izaten dira udalerrian, herria sortu zeneko inguruan ospatzen direnak eta nekazarien eta baseritarren babesle kristauari gorazarre egiteko ospakizunetan dute jatorria. Herriarentzako adierazgarrienak beharko lukete, jatorri eta sustraien gogorarazle.**

**Eta bada** hori guztia kontuan hartuta, jai-giro ederra prestatzeko lanetan fin ibili den Jai Batzordea: goiko argazkian dituzu *sanisidroetako* egitaraua prestatzen ardura-tsu jardun duten lagunetako batzuk, eta giro herrikoidun programa prestatu dute maiatzaren 7, 8, 9, 10, 15 eta 16rako. Txistulari, buruhandi eta hankapaluakaz

hasiko dira jaiak hilaren 7an (19:00) eta aurtengo pregoia, bertso bidezkoa izanik, ALBEkoek botako dute. Jaiegunetan zehar bestelako kalejirak ere egongo dira, fanfarreakaz, zanpantzarrakaz eta trikitilariakaz, elektrotxaragaz e.a. Bertso aforia, txalaparta joaldiak (UKTEST), herri bazkaria, sokatira txapelketa, PTParen inguruko mahaingurua, idi-probak, herriko taldeen eta Oskorriren kontzertua... Hilaren 9an, gainera, baseritar jantzita joateko deia zabaldu dute. Den-dena inguruari eta jai-giroari estuki lotuta! ○

**«Hilaren 9an, zapatua, baseritar jantzita joateko deia zabaldu dute Jai Batzordekoek»**

## Ekitaldi batzuk

- **Maiatzak 7, eguna:**
  - Kalejira (Malakatetik; 19:00)
  - Bertso-pregoia eta txupina (19:30), ostean, txokolatada (txosnagunea)
- **Maiatzak 8, barikua:**
  - Graffiti erakusketa (egunean zehar)
  - Mus txapelketa (kiroldegia, 18:00)
  - Umeentzako antzerkia (Malakate, 18:00)
  - Fanfarreakaz ibilaldia (Malakate, 19:30)
  - Bertso-afaria: S. Colina, A. Arzallus eta Fredi Paia (Txorimalo Gaztetxea, 21:30)
  - Kontzertuak: Sin Pegas, Hemen, HnexoH eta BETAGARRI (Txosnagunea, 19:30)
- **Maiatzak 9, zapatua:**
  - Kultur plaza (egunean zehar)
  - Umeentzako puzgarriak eta jokoak (Malakate plaza, 11:00)
  - Herri kirolak (Txosnagunea, 11:30)
  - Herri bazkaria (Txosnagunea, 15:00)
  - Dantza taldeen kalejira: Beti Jai-Alai, Agurra, Txikiak, Korosti, Aratz, Itxartu eta Itxas Argia. (Malakatetik, 17:30)
  - Itxas Argiako Txikien dantzaldia (Frontoia, 18:00)
  - Kontzertuak: Draa, Sarkor eta Trikizio (Txosnagunea, 21:30)
- **Maiatzak 10, domeka:**
  - Sokatira txapelketa (kiroldegia, 11:30)
  - Txalaparta joaldia eta taloak (12:30)
  - Erromeria: Egan (18:30)
- **Maiatzak 15, barikua:**
  - Meza eta aurrekua (12:00)
  - Zilvitis (Lituania) taldearen dantza erakustaldia eta hamaiketakoa (Elizako landa, 12:45)
  - Idi-probak (kiroldegia, 17:00)
  - PTPren inguruko mahaingurua (Txorimalo, 18:00)
  - Umeentzako jolasak eta txokolatada (Kiroldegiko parkina, 18:30)
  - Kontzertua: Oskorri (parkina, 21:30)
- **Maiatzak 16, zapatua:**
  - Puzgarriak umeentzat (Malakate, 11:00)
  - Ibilaldia kale-estartetatik (11:00)
  - "Herrien Jaialdia" dantza erakustaldia: Itxas Argia eta Zilvitis (parkina, 21:00)

## Areetako moila hobetzeko

Udalak **2.300.000 euro** erabiliko du



Txurrukaren monumentuan hasi eta La Bola hondartzaraino doan tartea urbanizatzeko asmoa dute.

**Getxoko Udal** Gobernu taldeak bultzatuko duen egitasmoak jasotzen duenaren arabera, Toki Inbertsiorako Espainia Estatuko Funtzak emandako diru laguntzaren zati bat, hau da, 2.300.000 euro, bideratuko dute Areetako kaia urbanizatzeko. Urbanizatzeko barrikuntzak, oro har, "argiztapen barria eta kalitate handiko hornigarriak jartzea" izango dira, eta egiteko horretan "gune horretan dauden hesi arkitektonikoak kentzeko" asmoa ere badute.

Bestalde, Getxoko alkate Imanol Landaren esanetan, "udalerriko pasealeku enblematiko eta nagusi horretan" oinezkoen ibilgune (6,5 metroko zabalera izango du alde zabalenean) eta bidegorriko (3 metroko zabalera) zoladura barrizteko asmoa dute. Urbanizatu asmo duten

pasealekuaren luzera 1,5 km-koa da, hau da, Txurrukaren monumentuan hasi eta La Bola hondartzaraino doan tartea.

Dena dela, kaian egingo diren "zaharbarritze lan garrantzitsuenetakoa eta ikusgarrienetakoa, argiztapen berezia ipintzearena" izango dela jakinarazi dute; izan ere, Hirigintza zinegotzi Joseba Arregik iragarri zuen lez, "murrua, goitik behera, uraren azaleraraino argiztatuko baita kolore bitan, uraren azalera bera eta inguruko etxeak narbarmetzeko". Horrez gainera, itsasoa eta oinezkoen ibilgunea bereizten duen murru hori garbitu ere egingo dute.

Aurreratu dutenez, lanak egiteko 5 hileko epea aurreikusten dute eta uda aldera hasiko ei dira. Lanetan egongo bada ere, oinezkoentzako pasealekua ez dela itxiko adierazi dute. ○

## HELBURU EZBERDINEKO ELKARTASUN AZOKAK

Alde batetik, Getxoko Udalak eta Emaus Gizarte Fundazioak antolatutako aurtengo bigarren Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsuaren astea hilaren 18tik 24ra egingo da Algortan eta Getxon (Andra Mari). Bestetik, Getxoko Kultur Etxeari dohain emandako liburu, aldizkari eta bideo salmentarako IV. Bigarren eskuko liburuen azoka solidarioa egingo da (hilak 21-24; Biotz Alai plaza; goiz eta arrasti). Salgaiek euro bat inguru balioko dute, eta batuko den dirua GKE batek bultzatzutako elkartasun egitasmo batera bideratuko da.

## "ATHLETIC-I ARNASA EMATEKO" EKITALDIK

Athletic-ek eta Bartzelonak jokatu duen Espainiako Kopa finala (hilak 13) dela eta, Getxoko Udalak, "Athletic-i arnasa emateko", ekitaldi bereziak antolatu ditu "Getxo Athletic-egaz" ekimenaren baitan. Ekitaldiak norgehiagokaren egunean izango dira, aldi berean Algortako Geltoki eta Erromoko Santa Eugenia plazetan. Iragarri dituzten jarduerak hauek dira: telebista pantaila erraldoi bi partida ikusteko, umelantegiak (18:00), karaokea, erromeria (20:00) eta 24 artxo erreko dituzte tripazoria baretzeko.

## XXVI. FILATELIA ERAKUSKETA

Hilaren 11tik 16ra Getxoko Filatelia Elkarteak ohi legez bilduma erakusketa ipiniko du ikusgai Villamonte kultur etxean. Getxoko mediku izandako Pedro Bilbao Encera zenari egingo dio aurtengo elkarteak gorazarre eta zigilu bereziak aterako ditu (hilak 11-12; 17:00-21:00).

## BAPIRKE UDALEKUETAN IZEN-EMATEA

Bizarra Lepoan euskara elkarteak 5-12 urte bitarteko umeentzat antolatzen dituen udaleku irekietan izen-ematea zabalik: hilak 11-14 (bazkideentzat) eta hilak 18-21 (bazkide ez direnentzat).

Informazio gehiago: 94 491 43 57

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45  
ALGORTA

Garaizar  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net  
Illeta kalea 1• ALGORTA



**Karlos Galan** > UKTESTeko txalapartaria

“Gure lehenengo urteera izan da, eta gainera fusioa egitea lortu dugu!”



Karlos Galan UKTESTeko kidea. Elkarreagaz harremanetan ipintzeko: 656 798 622

**Orain dela 5 urte sortutako UKTEST taldeko Karlos Galan eta Urko Etxebarri Balosen (Las Palmas -Kanaria Handikoa-) egon ziren martxoan (hilak 26-29) txalaparta ikastaroak eskaintzen. Esperientzia ederra izan da eta itzultzeko asmoz bueltatu dira. UKTESTek urtean zehar ikastaroak ematen ditu, txalapartara hurreratu gura duen edozeinentzat ateak zabal-zabalik dituzte (Etorkizunan batzen dira, eguenetan, 20:00etan).**

—Zelan sortu zen Kanarietako aukera?

—Algortako lagun batek han gizon bat ezagutu zuen, txalapartaren inguruko liburu bat irakurtzen zebilela-eta, Euskal Herriarekiko begirune berezia zuena; bera sevilla da, hainbat alditan egona da Euskal Herrian, semearen izena Unai... Behin txalaparta bat gura zuela kontatu zion eta ea norbaitegaz harremanetan ipin zezakeen, nigana jo eta hala hasi zen dena. Bera Baloseko eskola publikoko AMPAko (Guraso-ikasleen elkarte) kide da, eta hasieran bertatik txalaparta bidaltzea proposatu zidan, uste zutelako erraza izango zela liburu batzuen bidez jotzen ikastea. Neuk pro-

posatu nion gonbidatzen bagintuen, gu prest geundela hara joateko, ikastaroren bat eskaintzera. Diru-laguntza bila hasi ginen biok; hasieran, bazirudien eurek gure bidaia ordaindu ahalko zutela, Baloseko Udalaren diru-laguntzagaz; baina, “krisia dela eta” ez zieten eman. Halere, txalaparta erosteko beste bazutela esan zigun; erosi zuten. Nik Getxoko Udaleko Kultura zinegotziagaz berba egin eta ez-ohiko diru-laguntza eman ziguten, bidaia bakarrik ordaindu ahal izan genuen. Kanarietarantz martxoaren 26an (eguna) abiatu ginen. Barikuan 9:00etatik 13:30era eskolan txalaparta lantegiak eman genituen: 400dik gora ikasle, mailaren ara-

bera taldetan banatuta, goiz osoan zehar... Gu azalpenak ematen (txalapartaren historia, argazkiak e.a.), joaldiak egiten... Ez da nik diodalako, baina arrakasta itzela izan genuen! Hango musika irakasleak giroa berotu zuen, txalapartaren gaia umeakaz landuz; ikasteko irrikan zeuden! Bitxikeria legez, bada kontu bat, ni benetan harritu, hunkitu ninduen: azken orduan, gu ia indar barik geundela, 20 bat ume hurreratu zitzaigun autografo eske! Barriro indarbarritu ginen! Zaturako beste saio bat prest zuten gure lagunak Vecindarioko auzokide elkarteke eraikinean, gazteei eta

**«Han ereindako haziak zein fruitu eman duen, hemen erakusteko asmoa dugu»**

auzokideei begirakoa. Folklore talde batek ere jardun zuen: pertsona nagusi bik “chacaras” (kaskainetak) eta danborra jo zuten; Gomera eta Hierroko tresna tradizionalak dira, horien historia kontatu eta gazteentzako mezua ere utzi zuten: lekukoa hartzen ez bazuten, ohitura galduko zela. Hasieran ez ziren geugaz batera jotzen ausartu, gero bai, bat-bateko nahasketa egin genuen. Gogoratzeko lako data, hura! Chacaras-danborra eta txalapartaren fusioa! Guretzat lehenengo pausoa izan da, asmo nagusia Euskal Herriatik kanpo txalaparta jotzera joatea zen; lehenengo urteera, eta gainera, fusio hori egitea ere lortu genuen!

—Lehenengo baina ez azkena, ezta?

—AMPA elkartearen eta Hiritarren Partaide-tzako zinegotziaren (bidaia ordainduko ligukete) proposamena jaso dugu, irailurrian joateko, egun eta ikastetxe gehiagotan ikastaroak emateko. Bestalde, 2010eko Txalaparta Jaira hango bikote bat gonbidatzeko asmoa dugu, ereindako haziak zein fruitu eman duen, hemen ere ikus dadin. ○

## Jazzaldiko egitaraua prest

**Uztailaren 1etik 5era** egingo den jaialdiak hamabost emanalditik gora eskainiko ditu



Diane Schuur, Seattleko piano jole eta abeslaria

**XXXIII. Getxoko Jazzaldia**k prest dauka daborduko 33. ekitaldirako egitaraua. Kultur Etxetik jakinarazi dutenez aurten hamabostetik gora jazz emanaldi eskainiko dira jaialdiaren baitan, uztailaren 1etik 5era bitartean. Aurten ere jazz munduan izen berezia duten musikariek eta taldeek osatzen dituzte jaialdiko egun bakoitzeko kartelburuak. Hurrenez hurren (hilaren 1etik 5era), ondorengoak dira musikari edota talde nagusiak: Diane Schuur “jazzaren lehen dama” (Seattleko piano jole eta abeslaria), Omar Osa latin jazz erritmo elektronikoakaz musikagile eta perkusio jole kubatarra, Getxoko

Jazzaldira bigarren aldiz hurreratu den Michel Camilo piano jole dominikarra, R&B, funk eta pop doinuak nahasten dituen Buffaloko (New York) Spyro Gyra taldea, eta azken egunean kontzertua eskainiko duen Paquito D’Rivera eta Chano Dominguez musikari entzutetsuek osatutako bikotea.

Horiez gainera, ezin alboratu Talde Lehiaketako emanaldiak (Biotz Alai plaza, 21:30; ostean talde nagusiak), Hirugarren Milurteko Ataleko kontzertuak (Getxo Antzokia plaza), Dixi Gunekoak (Algortako Geltoki plaza, 18:00) eta *Jam sessionak* (Piper’s Irish Pub). ○

### “EMAKUMEAK MUSIKAN” JAIALDIA, HILAK 8-10

“Musika klasikoaren arloan emakumeen lana bultzatu eta anonimotasunean izandako artisten lana berreskuratzea” helburu duen Emakumeak Musikan elkarteak, izen bereko jaialdiaren bitartez, estilo eta garai ezberdinetako andrazko artista eta musikagileen lanak hurreratu ditu Getxora, hilaren 8tik 10era. Emanaldiak Areetako Andres Isasi Musika Eskolan izango dira, 20:00etatik aurrera (azken egunekoak 19:00etan hasiko da) eta sarrerak gonbidapen bitartekoak dira.

**Informazio gehiago:** [mujeresenlamusica.blogspot.com](http://mujeresenlamusica.blogspot.com)

### KIRMEN URIBE (HILAK 7) IRAKURZALEEN TXOKOAN

Bilbao-New York-Bilbao azken eleberriaz jardungo du Kirmen Uribe idazleak Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoa hilaren 7an. Hitzordua ohi legez Algortako Aldai Patronatuan izango da, 20:00etan.

### HAUR KANTARI TXAPELKETA AREETAN

Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketaren saio bat entzuteko aukera egongo da hilaren 23an 19:00etan Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Entzunaldirako sarrera doan izango da.

### GETXO LINGVAE JARDUNALDIK PREST

Hilaren 13an eta 14an batuko dira Igeretxe hotelean Getxo Linguae 2009 jardunaldietan parte hartuko duten adituak eta irakasleak; hizkuntzaren gainean eta horren irakaskuntzaz berba egin eta hausnartzeko asmoz. Aurtengo jardunaldietan jorratuko dituzten gai nagusiak ekimenaren izenburuak laburbiltzen dituenen ingurukoak izango dira, hau da: “Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna eta IKTak”.

**Informazio gehiago:** [getxolinguae2009.wordpress.com](http://getxolinguae2009.wordpress.com)



## Basurto

Algorta S.L.  
altzariak

### LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • ALGORTA



**Iñaki Eizmendi** > Soziolinguista

“Guretzat garrantzitsuena guraso erdaldunen seme-alabak elebidun orekatuak izatea da”

“Ez dakigu euskaraz... Zelan lagundu gure seme-alabei?” izenburupean dator hilaren 11n, 19:00etan, Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendik Leioako Auditoriumen eskainiko duten hitzaldia. Bien artean esperientziak eta gurasoentzako gakoak emango dituzte. Duela hiru urte hasi ziren guraso erdaldunei aholkuak ematen, eta dagoeneko 50 saio baino gehiago eman dituzte.



Iñaki Eizmendi

—Nola sortu zen ekimen hau aurrera erorako ideia?

—Alkarbidetik sortutako egitasmoa da. Elkarrekin hau Bizkaiko euskara zerbitzuen bilgunea da, eta beraiek ume elebidunak zituzten gurasoentzako eskuliburua sortu zuten. Beranduago eta horren inguruan, hitzaldi batzuk antolatu zituzten, Julio Ibarra eta niri deitu ziguten. Hitzaldiak interesgarriak zirela iruditu zitzaigun eta harrera ona zutela ikusirik jarraitu dugu.

—Azaldu ahal diguzu hitzaldiaren nondik norakoa?

—Hitzaldi hau seme-alabak euskaraz ikasten dituzten guraso erdaldunei zuzenduta dago. Hauek hainbat kezka izaten dituzte elebitasunaren inguruan; izan ere, askotan ez dituzte mezu zuzenak jasotzen, edo jasotzen dituzte-

nak kontrajarriak izaten dira. Gainera, kome-ni zaigu gure seme-alabak elebidun orekatuak izatea, bai euskara eta bai gaztelania ondo menderatzea eta hau da, hain zuzen ere, aurkezten saiatzen garena. Elebitasun orekatu horri begira, nahiz eta euskara ez jakin, gurasoek zer egin dezaketen erakustea da gure lana.

Eskolak mugak ditu eta berak bakarrik ezin du seme-alabak elebidun orekatua izatea lortu; beraz, guraso diren aldetik modu akti-

boan lagundu behar diete.

—Euskal Herriko beste hainbat herritan ere aritu zarete aholkuak ematen; zer nolako harrera dauka publikoarengan?

—Orokorrean ona, normalean jende dezentte hurreratzen da, eduki eta planteamentu aldetik jendeak oso gustura hartzen ditu. Guraso erdaldunentzat ematen diren mezuak aproposak dira, oso sinpleak, oinarrikoak. Ideia edo zalantzak argitzeko oso egokiak eta beraz, oso ondo hartzen dituzte.○

## Leioako Umore Azoka

Lau egunetan zehar, Leioako kaleak 48 antzerki taldek ekarritako umore eta kolorez jantziko dira



Maitzaren 21etik 24ra bitartean ospatuko da aurtengo edizioa

**Urtero legez,** Leioako Umore Azoka hastear dago. Maitzaren 21etik 24ra bitartean, herriko bazter guztiak umorez, kolorez eta, oro har, mota guztietako antzezkienez beteko dira interpretazioaren jaialdi honen hamargarren urteurrena ospatzeko asmoagaz.

Lau egunetan zehar, Argentina, Ameriketako Estatu Batuak, Australia, India, Japonia, Txile edo Frantziakoak dira, besteak beste, etorritako antzerki taldeak. Konpainia hauek guztiak beraien errepertorioa Euskal Herriko hainbat konpainiagaz batera aurkeztuko dute.

Guztira 472 lan izango dira ikusgai eta horietatik 30 ikuskizun euskaldunak izango dira, beste 256 Espainiako Estatutik

etorriak eta gainontzeko 186ak munduko beste bazter desberdinetatik.

Aurtengoan, 49 konpainiak parte hartuko du umore azokan: Kukubiltxo eta “El derecho al derroche” ikuskizuna, Corpus taldearen “Grand peep Show” antzezlan, Hipnosia “Atxha Natto” lana, El retrete de Dorian Gray eta bere “ Ne me quitte pas”, Trapu Zaharra eta “¡Vaya ganga!” edo La Pez “El show de la Patera Rosa”-gaz dira, besteak beste, aurkeztuko diren antzezkiunetako batzuk; egunean hasi eta domekan amaituko den azoka honetan. Ekimen hau aukera parebakoa da konpainiak, banatzaileak, programatzaileak, prentsa eta ikusleago batzeko eta antzerkiaren gozatzeko. ○

### TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN UDAL ZERGAREN KOBRAKETA

Aurtengo Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Udala Zergaren Kobraketa hasi da Udala. Ordaindu beharrean dauden auzokideak datorren maiatzaren 29ra arte izango dute epea zabalik. Honengatik, Udalak mailaz maila igorriko ditu zergadun bakoitzaren helbidera zergaren inprimakiak, bertan ordaintzeko azalpen guztiak ematen direlarik. Gaiak bako borondatezko ordainketa egiteko inprimakia aurkeztu beharko da epea baino lehen. Bestalde, gainkarguzko derrigorrezko ordainketa egiteko ezarri den epea igaro ostean, zuzenean ekingo zaio hori premiamenduzko bidetik kobratzeari. Hala ere, aurka egiteko bideak daude eta berraztertze errekurtsoa ipini ahal izango da udaletxean.

### BERDINTASUN SAILEKO LOGOTIPOA LEHIAKETA BIDEZ AUKERATUKO DA

Leioako Udalak lehiaketa bidez aukeratu du Berdintasun Sailaren logotipo barria. Honen helburu nagusia tokiko erakundearen sail horri irudi modernoa jartzea da, herritarrek eta udal langileek identifikagarria izateko asmoagaz. Ekintza honegatik, ibilbide luzea duen Berdintasun Sailaren irudia berritzea eta hobetzea lortu gura dute, identifikagarria izateagaz batera; baina honetaz gain zerbitzuaren goraiapamena bilatu gura dute.

### NAZIOARTEKO MAGIA-GALA DATORREN MAITZAREN 9AN

Datorren hilaren 9an, Leioako Auditoriumek Nazioarteko Magia-Gala hartuko du 19:00etan. Bertan, Imanol mago euskalduna, Argentinako Carlos, Uruguako Nicolas Acevedo eta Portugalgo Helder Guimaraesegaz batera arituko da.

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2  
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

**ERROTULOAK**



ERA GUZTIETAKO  
ERROTULUAK eta  
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

## [erandio]

**Mentxu Muniategi** > Sendabelar ikastaroko irakaslea

“Sendabelarren mundua bogan dagoen arren, jende askoren artean ezjakintasuna somatzen da”

**Inguruko belarrak ezagutaraztea eta aztertzea izango da sendabelarretan aditua den Mentxu Muniategiren lana. Bizkaitarrak Erandion eskainiko duen ikastaroan edonork parte har dezake eta maiatzaren 7, 14, 21 eta 28 egunetan izango da.**

—Zer dakar sendabelarren ikastaroak?  
—Denetik, berez ikastaro laburra izango da, normalean egiten ditugunak zazpi egunetakoak izaten dira eta hiru edo lau ordu egunetakoak. Erandiokoa barriz, lau egunetakoak izango da eta saio bakoitzak ordu bi eta erdi iraungo du. Bestetik, ikastaro hau teorikoa eta praktikoa izango da, ahaleginduko gara gure inguruko landareak ikusten, baita erabiltzen ere.

—Aipa dezakezu inguru honetako landareren bat?

—Zain belarra adibidez. Hau oso ona da eztlarentzat, zaurientzat, baita antinflamatorio gisa erabiltzeko.

—Zenbat denbora daroazu honelako ikastaroak eskaintzen, eta nola sartu zinen sendabelarren munduan?

—Sei urte inguru. EHNE sindikatuaren bidez hasi nintzen eta nire ustez, jaso dudana prestakuntzarik onena izan da.

—Ikastaroa nori zuzenduta dago?

—Jende guztiari zuzenduta dago, ez dago



Mentxu Muniategi, bigararena ezkerretik hasita, bere ikasleekin

adin jakin batekoei zuzenduta; baina normalean izena ematen duen jendea gaztea zein adinekoa, eta emakumea izaten da.

—Uste duzu jendeak honi buruzko informazioa daukala, ala ezjakintasun handia dago oraindino?

—Bogan dago eta bai, nik uste dut ezjakintasun handia dagoela honen inguruan. Belar dendetan lan egiten duen jendeak ere askotan ez dauka inolako formakuntzarik.

—Oinarritzko erremedio naturalen bat aipatuko zenuke?

—Bai. Adibidez, umeen kalentura edo sukarra jaisteko intxusa (sauco) edo ezkaia (tomillo) erabiltzen da.

—Sendabelarrak, neurri handitan kaltegarriak ere izan daitezke...

—Sendabelarraren arabera. Baina normalean ez dute inongo kalterik egiten. Adibidez, aipatutako intxusa edo ezkaia neurri handietan hartuz gero, ez dago inolako arazorik.

—Euskal Herrian badago sendabelarrak erabiltzeko ohiturarik?

—Bai hemen, eta beste herri guztietan ere.○

## Partekatutako alokairua

Erandion hutsik dauden etxebizitzak alokairuan ipintzea proposatu du Gazte Asanbladak



Etxebizitza eskubidearen aldeko dinamikan murgildu dira Gazte Asanbladakoak

**Erandioko Gazte** Asanbladak partekatutako alokairua proposatu du gazteek independentizatzeko duten arazoari irtenbidea emateko asmoagaz.

Egitasmo honek Erandion hutsik dauden etxebizitza guztiak alokairuan ipintzea, eta bakoitzean hiruna gazte hartuz, udalerriko gazteek gurasoengandik independentzia eskuratzeko duten arazoa konpontzea bilatzen du. Izan ere, etxebizitza eskubidea dela eta, erandioztarrak kezkatuta daude, inguruan "egoera larriak" bizi baitira. Gainera, "oinarritzko eskubidea" den etxebizitza duina eskuratzeko oso zaila dela, ia ezinezkoa, gazte langileentzat azaldu dute EGAKoek.

Hori dela eta, etxebizitza eskubidearen aldeko dinamikan murgildu dira Erandioko Gazte Asanbladako kideak. Hasieran, informazioa batzen hasi ziren eta ondoren, kale inkestak egin zituzten herriko gazteen iritzia eta euren egoera ezagutzen saiatzeko asmoagaz. Eskuratutako datuakaz bideo txikia egin eta kaleratu zuten, kartoizko etxeak barreiatu, eta 1.000 etxe hutsen, 800 euroko ohiko alokairuen eta etxebizitza erosteko metro koadroko 4.000 euroen zenbakiak bazter guztietan ere ipini ditzuzte.

Orain, egindako lan guztiaren ondorioz, egoera konpontzeko proposamena egin, eta Udalaren esku-hartzea eskatu dute gazteek. ○

## MERKATARITZA ESKAERAREN AZTERKETA

Erandioko merkataritza bizibarrizteko plana martxan da, horretarako, gastuaren ihes-fluxu nagusiak eta merkataritza atzipenaren jatorria, eta kontsumitzailearen profila eta ohiturak, bai herrikoak eta bai kanpokoak, aztertuko dira. Ekimena aurrera eroateko 1.300 inkesta egin dituzte herri osoan.

## GAZTEEI SOR DAKIZKIEKEEN GATAZKAK BIDERATZEKO

Erandiok izan daitezkeen eguneroko gatazkak konpontzen duen kolaboraziozko kultura hedatzen duen programa barrizalea ipini du abian. Ekimen hau Altzagako institutua, Astrabudua eta Jado Compasion ikastetxeko DBHko ikasleei zuzenduta dago. Programa joan den apirilean hasi zen eta orain bigarren faseari emango dio hasiera. Honetan, tailerren bitartez zenbait gaitasun eta tresna eskainiko dira pertsoneri sor dakizkigukeen gatazkak bideratzeko.

## IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU EUSKARAZ

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak "Irakurri, Gozatu eta Oparitu" egitasmoaren 3. edizioa aurkeztu du. Irakurketa sustatzeko asmoz sortu da eta hiru pauso eman behar ditu bertan parte hartu gura duenak. Alde batetik, kasu honetan, Erandioko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu mailegutan hartu eta irakurri. Bigarrenik, irakurritakoa liburutegira itzuli, eta fitxa bete, liburuzainak deskontu txartela eman diezagun. Azken pausoa, liburu bat erosi eta norbaiti oparitutako diogu. Egitasmoaren helburu nagusia irakurzaletasuna bultzatzea da, eta horretarako Erandioko Berbots bezalako hogeita bat euskara elkarte hartuko du parte egitasmoan.

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**Basolanak**

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa  
**DEITU!**

Tf. 94 467 17 13  
FAX 94 467 42 41  
**ERANDIO (Bizkaia)**  
Sakelakoa  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

**ARLAN** ASCENSORES

Etxebizitzaarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

[www.arlan.biz](http://www.arlan.biz)

## TAOREN MARKA URDINAK DAUDE ORAINDINO SOPELAKO GALTZADETAN

Orain dela lau urte Sopolako udaleko osoko bilkurak OTA jartzeko erabakia onartu zuen, baina arrakasta handirik barik, erabaki honen aurrean sopoloztarrek desadostasuna azaldu zuten eta joan den 2008ko urtarrilean ordaintze sistema hau kendu behar izan zuten. Hala ere, biztanleak kexu dira oraindino TAOren marka urdinak lurlean daudelako, eta kotxea apartatzerakoan jendea nahastu egiten delako. Udalak marra urdinak ezabatzeko zailtasunak dituela azaldu du eta errepide guztietako ezabapenak aurrekontu handia suposazten duela gaineratu. Hala ere, balioespen bat eskatu diote enpresa bati.

## EUNATE AGIRRE BIGARREN WOMEN'S PIPELINE PRO TXAPELKETAN

Eunate Agirre bigarren izan da Hawaiko Oahu irlan jokatuako Women's Pipeline Pro txapelketako 20.edizioan. Sopoloztarra Puerto Ricoko Luz Marie Granderen atzetik geratu zen 1290 puntu lortuz. Bestetik, Hawaikoia izan da Ibatour 2009 Bodyboard Munduko Zirkuituko lehenengo proba. Agirre metro bitik gorako olatuen artean finalera sailkatu den europar bakarra izan da, eta hirugarren postuan utzi du orain arteko munduko txapelaren den Neymara Carvalho brasildarra.

## SOPELAKO MUSIKA TALDEEK JAIETAN JOTZEKO AUKERA DUTE

Herriko musika taldeek Sopela eta Larrabasterrako jaietan jo ahal izango dute. Horretarako, partaideetako batek, gutxienez, Sopolan errolatuta egon behar du, eta biografia eta CD bat eroan beharko ditu Gazte Bulegora maiatzaren 15a baino lehen. Zozketa egingo da taldea aukeratzeko.

## Dantza, abestia, musika...

Sopolako gaztetxoek Musikaz Blai programa barrian izena emateko epea zabalik



Lau eta hamabi urte bitarteko ume sopoloztarrek parte hartuko dute

**Soinketa, dantza** koreografiak, musika, abestiak... Musikaz Blai ekimen barriak era guztietako jarduerak dakartzatza, lau eta hamabi urteko ume sopoloztarrek ondo baino hobeto pasa dezaten. Uztailaren 6tik 17ra bitartean gaztetxoek ekintza artistikoak eta jolasak landuko dituzte, musikaren adierazle desberdinetara hurreratuko dira; entzumena hezteko aukera izango dute, musikaren bitartez, sentsazio eta erantzun barriak garatuko dituzte eta soinketaren bidez, beraien gorputza ezagutzen joango dira.

Musikaz Blai-ren helburu nagusien

artean, ikaslearen sentikortasun artistikoa musika, dantza eta arte eszenen bitartez piztea eta aisialdirako eta musikari lotutako programa sortzea dira.

Parte hartu gura duenarentzako baldintza bakarra, ordea, Sopolan errolatuta egotea da eta izena emateko epea maiatzaren 1etik 29ra izango da, Udaletxeko Hall Kulturalean. Bestetik, Musika hamabostaldi honek gehienez 60 ume hartuko ditu. Antolatzaileek azaldu dutenaren arabera, eskaintzen diren plazarak baino eskari handiagoa badago, zozketa publiko bitartez banatuko dira. ○

Jose P. Ansoleaga "Josetxu" > Esaera Zaharren Txapelketa

"Kontu handiagaz ibili behar gara esaera guztien esanahia desberdina izan dadin"



Jose Perez Ansoleaga

**Gotzon Garate** idazle eta filologo bizkaitarraren omenaldiagaz dator aurtengo Sopolako Esaera Zaharren Txapelketa. Jaialdia maiatzaren 16an izango da "Jakinek ez deko kalterik" lelopean. Guk Josetxu, ekimenaren arduradunagaz berba egiteko aukera izan dugu.

—Aurtengo txapelketak Gotzon Garate zena omenduko du, zer daukazue prestatuta bere omenaldirako?

—Aipamena egitea pentsatu genuen, eta lortzen badugu, agian bere senitartekoren bat saiora gonbidatzea. Baina oraindino ez dakigu ezer.

—Zer eskaini dio Gotzon Garatek Esaera Zaharren Txapelketa honi?

—Baimena eman zigun berak idatzitako liburua erabiltzeko. Gainera, orain dela lau edo bost urte epaile gisa parte hartu zuen.

—Aurtengo leloa "Jakinek ez deko kalterik" zergatik aukeratu duzue esaera hori eta ez besteren bat?

—Gotzon Garatek gauzak jakiteko edo

ezagutzeko grina ikaragarria zeukan, lekuz lekuz, baserriz baserri ibiltzen zen bere jakimina asetu guran.

—Hamasei urte pasa dira Sopolako Esaera Zaharren lehen Txapelketa ospatu zenetik; ordutik hona, gauzak aldatu direla uste duzu?

—Hasiara batean Algortan sortu zen, nahiz eta saioa ondo atera zen, herriko jendeak ez zuen barriro errepikatu gura izan eta beraz, Gabi Basañez eta biok erronka hartu, eta egiten hasi ginen. Apurka-apurka jende

**«Gotzon Garatek edozer gauza jakiteko grina ikaragarria zeukan»**

gehiago sartzen joan zen, Aitor F. de Martikorena. Gainera, honelako erronka batean beti sortzen dira zalantzak eta Aitorrek hartu zuen ardura hori. Ehun esera izan behar dira eta gerta daiteke esanahiaren aldetik antzekoak izatea eta beraz, kontu handiz ibili behar gara desberdinak izan daitezten.○

DIDAK  
**hAMILTON**  
IDIOMAS

## Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
info@didakhilton.com

## 4 bide pinturak



RIPOLIN  
BONDÉX  
DYRUP

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER  
DEVNA  
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK  
Taberna**

Bentatu 2  
48600 Sopela  
Tf. 94 676 03 28

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

**GAZTEENTZAKO  
PRESTAKUNTZA  
IKASTAROA HASTEAR**

Gazteentzako prestakuntza ikastaroak maiatzaren 11n emango dio hasiera eta ekainaren 8an amaituko da. Honetan, gatazkei buruzko oinarri teorikoa lantzea eta gatazkei aurre egiteko ohiko estiloak landuko dira. Bestalde, sormenaren definizioa eta ezaugarriak erakutsiko dira, hizkuntza adierazgarriak erabiliz, txotxongiloak edo antzerkia esaterako. Gainera, sortzeko tekniken ahalmena erabili ahal izango da, gatazkek erregulatzeko eta esperientziak garatzeko. Ikastaro hau 1977-1991 urte bitartean jaio direnei zuzenduta dago.

**LANTZARTE DAGOEN  
MODUAN UZTEKO ESKATU  
DUTE BERANGOZTARREK**

Berangoko udalak, ospatutako azken osoko bilkuran, aurkeztutako Hirigintza Kontseilu aholkularitza sortzea gaitzetsi du. Koldo Martinez EBko zinegotziak egindako proposamena izan zen. Martinezek kontsulta egin gura zuen Lantzarte zelaiaren etorkizuna erabakitzeko. Baina 7.000 biztanle baino gutxiago dituzten herriak ez daude honelako kontseilua arautzera behartuta, nahiz eta egin dezaketen. Bestetik, Lantzarten bizi diren herritarrek osoko bilkuran parte hartu gura zuten ia 900 sinaduragaz, baina azkenean beraien proposamena ez zen eguneko gaien zerrendan onartu. Sinatzaileek Lantzarte dagoen moduan uzteko eskatzen dute.

**Turikaldoi**

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI 48990 GETXO

**Eguneko zentroa Aljerian**

Udalak saharar herriaren kanpamenduan sortuko den nagusientzako zentroa eraikitzen lagunduko du



20.000 euro inbertituko ditu Udalak sahararrentzako kanpamenduan

**Berangoko Udalak** 20.000 euro inbertituko ditu Aljerian erbesteratuta bizi den saharar herriaren kanpamendu batean; Bucraa eskualdean, Aaiun pobintzian, eraikiko den eguneko zentroan. Ekimena hirugarren adineko pertsonari zuzenduta dago, nahiz eta arrastietan gazteek ere erabili ahal izango duten.

Zentro hau aurrera eroateko, eta Bucraa eskualdea hobeto ezagutzeko helburuagaz Berangoko alkatea den Anabel Landa, Juan Ramon Villanueva hezkuntza zinegotzia eta Izaskun Fernandez Castañeda hazienda arduraduna Euskal Herriko beste hainbat

udalerritako ordezkariakaz batera bertara hurreratu dira.

Eguneko zentroak hiru egongela, sukaldea, zerbitzuak, komunak, duxtak, bainu turkoa, mediku kontsulta, zaintzarako dependenziak eta bulegoak izango ditu.

Zentro hau 104 lagunek erabiltzeko eraikiko da. Beste 35 hirugarren adineko pertsonari etxeetan atendutako zaie, horrela otordu bat behintzat ziurtatuko dietela azaldu zuen Landak.

Arrastiko seietan, nagusiak beren etxeetara bueltatzen direnean, gazteek erabili ahal izango dute eguneko zentro hau. ○

**Herrien arteko Berba Probak > Lagune, igjerri esakune!**

Bertoko euskararen erabilera bultzatu gura dute txapelketagaz



Mungiako Foruen Plazan hasiko da txapelketa

**Herritarren ekimenari esker** eta TXOKOLO kultur elkarteak bultzatuta, maiatzaren 9an Herrien arteko IV. Berba Probak egingo dira. *Lagune, igjerri esakune!* leloa aukeratu dute antolatzaileek aurtengo edizioarako.

Mungiako eta inguruetako esakuneak eta bertsoak batzen dituen lehiaketa bada ere, Uribe Kostako koadrilek ere parte hartzen dute. Joan den urtean, Urdulizkoak eta Leioakoak egon ziren, besteak beste. Ekimen herrikoia eta dibertigarri honen helburuak, bertoko euskara lantzea, esakuneak erabiltzeko eta bertsoetarako zaletasuna piztea, eta herrien arteko lehia-giro ona sortzea dira. Sopelako Esaera Zaharren Txapelketan bezala, hizkuntzagaz jolastuz ondo pasatzeko aukera aproposa da hau ere.

Herri bakoitzetik gura den beste taldek eman dezake izena; taldeak hiru lagunekoak izan behar dira. Goizeko 11:00etan hasiko da txapelketa Mungiako Foruen Plazan.

Parte-hartzaileek ibilbide bat egingo dute bertsoariakaz batera herrian zehar, tabernaz taberna. Trikitilariak eta pandero joleak lehiakideakaz batera joango dira, giroa alaitzeko. Taberna bakoitzean bertsoariak bertso bana botako diete talde guztiei eta, azken hauek, bertso horri ondo doakion esaera zaharra pentsatu beharko dute, aldeztatik emandako esakuneen zerrenda

**«Herri bakoitzetik gura beste taldek eman dezake izena»**

gogoratuz (zerrenda hori ezin da aldean eroan txapelketak irauten duen bitartean).

Arrastian, Bentadeseko aterpean bazkaldu ostean, finala jokatu dute; proba fisikoak, berbazoak eta txapela jaurtiketa izango dira. Amaitutakoan eta irabazleentzako saria banatu ostean, erromeriagaz eta jai giroagaz gozatzeko aukera izango dute hurreratzen diren guztiek. ○

**AIXERROTA BHI**  
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA  
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

**BASTARTENA**  
URDULIZ  
Telefono: 940 701 120

Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2  
**ALGORTA**

**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**VIEJO CAFE**  
kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

## ZAINZTAILE ETA IRAKASLE EUSKALDUNEN ZERREDA

Iazko irailean Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ekin zion zaintzaile, begirale (aisialdi eta kirol begiraleak) eta eskola partikularretarako irakasle euskaldunen zerrenda osatzeari. Esparru honetan dagoen langile euskaldunen gabeziak bultzatuta erabaki zuen Mankomunitateak zerrenda hori osatzea. Zerrenda gura duenarentzat dago eskuragarri, eta behar izatekotan, 94 676 26 74 telefonora deitu eta hautagaien artean aukeratu ahal izango da.

## MULTIABENTURA TXANGOIA 22TIK 24RA

Plentziako Kultur Etxeak antolatuta, Murillo del Gallego (Huesca) herrira joateko aukera izango da hilaren 22tik 24ra. Bertan, multiabentura kirolak egingo dituzte, raftinga eta arroiak jaitsiera, besteak beste.

## LEMOIZKO MAIATZEKO AGENDA KULTURALA

Badago zer aukeratu Lemoizko maiatzeko agenda kulturalen. Hilaren bigarren asteburuan, San Isidro jaiak ospatuko dituzte Urizar auzoan. 16an aldiz, Artisautza eta Nekazaritza Azoka egingo dute Armintzan. Maiatzaren 24an, zine emanaldia egingo dute etxeko txikientzat, arrastiko 19:30ean Andra auzoan. Honez gain, 15etik hil amaiera arte, Sonia Rueda marrazketa irakaslearen erakusketa ikusi ahal izango da Kultur Etxean.

## PLENTZIA

### Haur eskolan behar egiteko izen-ematea zabalik



Lehen Hezkuntzako Ikastetxe publikoan ipini gura dute haur-eskola

**Espainiako** Gobernuak emandako tokiko inbertsorako diru poltsa, Haur Eskola eraikitze erabilteza erabaki du Plentziako Udalak. 720.000 euro inbertituko ditu eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoan altxatuko du eraikin barria. Honez gain, tokiko inbertsiorako estatuko fondoak langabezia arintzeko helburua ere badaukanez, proiektua aurrera errotan duen enpresari, bertoko biztanleak kontratatzea eskatuko dio Udalak.

Hala ere, ez da Plentziako Udala izango

lanpostuak esleitzen dituen; honek, interresdunen datuak baino ez ditu emango, ondoren, enpresaren erantzukizuna izango da interesdunen aukeraketa eta kontratazioa. Udalak informazioa hartu eta eman besterik ez du egingo. Eskaerak aurkezteko epea hilaren 25a arte egongo da zabalik. Udalaren web orrian dagoen eskaera orria bete eta udaletxean aurkeztu beharko dute hurrengo agiriak batera: NANaren fotokopia, INEM txartelaren fotokopia, Lan Bizitza eta curriculum. ○

# Mai. 8 - Mai. 25

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### LEIOA

► **Bosteko 09 (Dora Salazar, Begoña Zubero eta Jorge Garcia).** Leioako erakusketa aretoan. Apirilaren 21etik maiatzaren 10era.

### ERANDIO

► **"Cien años de soledad" erakusketa Pablo Torrecillaren obragaz.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Maitzaren 4tik 28ra.

### GETXO

► **Mila Ocerinen olioak.** Erromoko erakustaretoan. Maitzaren 12tik 23ra arte. 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

## MUSIKA

### GETXO

► **XI Emakumeak Musikan jaialdia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Maiatzak 8, 9 eta 19. Barikuan eta zapatuan 20.00etan eta domekan 19.00etan. Sarrera gonbidapenez.

### ERANDIO

► **Bilboko Orkestra Sinfonikoa.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Maiatzak 9, zapatua. 19:30ean. Sarrera: euro bat.

► **XXX. Udaberriko Kontzertuak Mendiabaiarte Abesbatzaren eskutik.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Maiatzak 22, barikua. 20:00etan.

## ZINEMA

### LEIOA

► **Perseo Zine Foruma. "Cometas en el cielo".** Auditorium-en. Maiatzak 12, martitzena. 20:00 etan. sarrera: euro 2.



Joan den urteko edizioako argazkia

### ► Jaia

### Lamiakoko Euskal Jaia

Egun batzuk baino ez dira falta Lamiakoko Euskal jaiari hasiera emateko eta bertako Earle Plaza hainbat ekintzaren lekuko izateko. Ospakizuna goizeko 11:00etan abiatuko da txupinazioa eta txosnaren irekieragaz. Ordu berean, umeentzako tailerrak egongo dira eta horren ostean, txikienek antzerkiak gozatzen duten bitartean, nagusiek bertso-triki-pandero poteo euskalduna izango dute. 13:00etan, txotx erraldoia, herriko argazkien proiektzioa eta fanfariaren emanaldia izango dira. 15:00etan herri-bazkaria eskolako frontoian, bertso-saioa eta irrintzi txapelketa. Arrastian barriz, alardea, euskal jokoak edo txitxiburduntziagaz, besteak beste.

• **Non:** Lamiakoko Earle Plazan • **Noiz:** Maiatzaren 16an, zapatuan.

### URDULIZ

► **Zineskola: "Aztiz ezbaikorra".** Maiatzak 18. 10:00etan.

### LEMOIZ

► **Ikusi-Makusi.** Maiatzak 24. 19:30etan, Andra.

## ANTZERKIA

### LEIOA

► **Leioako Umore Azokako 10 edizioa.** Maitz 21, 22, 23 eta 24.

► **Nazioarteko Magia Gala. Auditorium-en.** Maitz 9, zapatua. 19:00etan. Sarrera: 10 euro.

### ERANDIO

► **A pesar de ellos.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Maiatzak 16, zapatua. Sarrera: euro bat.

### GETXO

► **Mujeres virtuosas.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Maiatzak 17, domeka. Sarrera: 3 euro.

## BESTEAK

### GORLIZ

► **Ipuin Kontalaria: Izaskun Mujika.** Ikastetxean. Maiatzak 23, zapatua. 18:30ean.

► **VII. Gorlizko Badia Triatloia.** Badian. Maiatzak 24, domeka. 10:00etan.

### BARRIKA

► **Kart zirkuitua 4-12 urteko umeentzat.** Udaletxe Plazan. Maiatzak 16, zapatua. 11:00etatik 14:00etara.

### GETXO

► **Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa.** Algortako Geltokia plazan. Maiatzaren 21etik 24ra arte. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

► **Getxoko San Isidro jaiak.** Maiatzaren 7tik 16ra. Azken egunean, 21:00etan, "Herrien Jaialdia" Itxas Argia eta Lituaniako Zilvitis dantza taldeen eskutik.

### LEMOIZ

► **San Isidro jaiak Urizarren.** Maiatzaren 8tik 10era.

► **Lemoizko Nekazal eta artisautza azoka.** Armintzan. Maiatzak 16, zapatua. 11:00etatik 15:00etara.

### LEIOA

► **Hitzaldia: "Ez dakigu euskaraz...Zelan lagundu gure seme-alabei?"** Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendiren eskutik. Auditorium-en. Maiatzak 11, astelehena. 19:00etan.

### URDULIZ

► **Defentsa pertsonala: hasiera.** Kultur Etxean. Maiatzak 9, zapatua. 10:00 etan.

### SOPELA

► **Esaera Zaharren Txapelketa.** Maiatzak 16, zapatua. Egun osoan zehar.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

[albuma]



# Sprayaren arrastoa

2008ko udan Spraykada, Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa, ospatu zuten Erandion, Euskara Elkarten Topaguneak antolatuta. Herriko hornei bizia ematen ibili ziren Euskal Herri osotik hurreratutako kale artistak. Argi utzi zuten, horrek, etxe barruan gertatzen dena ezkutatzeaz gain, herri bati kolorea eta bizitasuna emateko balio dutela. Nork esan zuen Erandio herri grisa dela? Sprayaren arrastoak bizirik dirau.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Gerraren

arrasto isila

Ez ziren gernikarrak izan 1937an bonba hotsa jasan zuten bakarrak. Ondoko argazki hau, Areetatik (Getxo) atera zuten. Eta ikus daitekeena, gaur egun hainbat turistaren bisita leku bihurtu den Bizkaiko Zubi ezaguna da. Ez dauka itxura oso ona; bidaiariak alde batetik bestera garraiatzen dituen ontzitxoak ez da inondik ageri; agian itsasadarreko uretan itoko zen. Hala ere, makinak, bonbek utzitako zauriak kopontzen ari dira. Gerra garaian, ezin da denbora alferrik galdu.

[berbetan]

Hizkuntzaren prozesamendua eta itxurapena burmuinean da Itziar Lakaren ikerketa taldeak aztertzen duena. Bilbon jaiotako hizkuntzalari honek bere ikerketa lanak Euskal Herriko Unibertsitateko katedradun irakasle lanagaz uztartzen ditu. 1986an, Euskal Filologian lizentziatu zen eta lau urte beranduago hizkuntzalaritza eta filosofian doktoretza eskuratu zuen Massachusetts Institute of Technology-n. Honez gain, Laka Euskaltzaindiako gramatika-batzordeko kide da, eta euskal gramatikaren inguruan zenbait liburu eta artikulu kaleratu ditu.

# Itziar Laka

## Elebitasuna munduan arruntena

Testua: **Ainhoa Lores** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Azal diezagukezu orokorrean ikertzen duzuen?

—Oro har, hizkuntzaren prozesamendua eta itxurapena burmuinean ikertzen dugu. Hala ere, euskal gramatikaren prozesamendua izango litzateke sakonetik ikertzen duguna. Bestetik, Elebitasuna burmuinean ulertzea ere interesatzen zaigu. Normalean, euskal gramatikako alorrak konparatzen ditugu, baita gaztelaniazkoak ere.

Beste era batera azaltzeko, Hizkuntza burmuinean dago eta nola itxuratzen den, edo elebidunaren kasuan, nola banatzen den hori asmatu nahi dugu. Gure burmuinean nola dagoen kokatuta jakin nahi dugu.

—Zergatik da haurtzarora unerik onena hizkuntza bat ikasteko?

—Azken zergatia oraindik ez dakigu. Uste dugu, burmuinaren garapenarekin zerikusia duela, baina hori da ikertzaileek, hain zuzen ere, erantzun nahi duten galdera bat, eta horren atzetik doazen ikerketa mota asko dago.

—Ama-hizkuntza dela eta ez dela, zeri dei-

tzen diozu zuk ama-hizkuntza, jaiotzetik ikasi dugunari, oso txikitatik ikasi dugunari, ikastolan ikasi dugunari...?

—Nire ikuspuntutik, erantzuna konplexua da, baina oro har, mendebaldean, hizkuntzari buruzko kultura txikia daukagulako. Gurea bezalako ikerketa bat egiten dugunean, dagoeneko, hizkuntza hitza bera ez da oso erabilgarria fonologiari buruz, sintaxiari buruz edo diskurtsoaren eraketaz hitz egiteko, besteak beste, ez baita gauza bera. Hizkuntzak atal desberdinak dauzka eta atal bakoitzak, orokorrean esanda, bere garapen aroa. Beraz, bada-

entzun dugun zerbait. Horrek ez du esan nahi ezin izango ditugula gerora, beste hizkuntza gehiago ikasi.

—Baina posible da bigarren hizkuntza bat ama-hizkuntza bezain ondo ikastea?

—Bai, zalantzarik gabe, eta gure herria horren adibide da. Nire ustez, hizkuntza hori ahalik eta goizen ikasi, eta ahalik eta gehien erabiltzea da gehien axola duena. Ikerkuntza egiten denean, zehazki gauza hauek nola gertatzen diren jakin nahi dugu; adibidez, pertsona guztiek daukate gaitasun bera bigarren hizkuntza bat ikasteko? Bada, ez antza; eta hori da ulertu

**“Posible da bigarren hizkuntza ama-hizkuntza bezain ondo ikastea; gure herria horren adibide da”**

kigu, eta hau ez da gure laborategiko lana, baizik eta munduan zehar eginiko lanetatik ateratakoa, fonologiaren kasuan adibidez, ama-hizkuntza zehazki amaren sabelean entzun dugun hizkuntza dela; beraz, soinueterako ama-hizkuntza da sabelean

nahi duguna, jabetze adinak axola du bigarren hizkuntzaren garapenean? Bai, eta horrek axola digu; zein maiztasunekin erabiltzen da hizkuntza, eta gure bizitzako zenbateko parte da hainbat alor emotibotan? Horrek eragina du? Bai, eta ulertu





nahi dugu. Guri interesatzen zaigu ikustea, burmuinak era berean itxuratuko duen bigarren bezala ikasitako hizkuntza edo lehenengoa; gauza batzuetan bai, beste batzuetan ez, ez dakigu. Nik azpimarratu nahiko nuke bigarren hizkuntza ikas daitekeela; horretarako ez dugu laborategi bat behar, egia dela ikusten baitugu.

—Behin aipatu zenuen umeek hizkuntza guztietako soinuak egiten dakitela; jaio eta hilabete batzuetara entzuten ez dutena bazterten dutela. Zergatik dela uste duzu? —Ez, nik ez dut sekula esan “egiteko”, suma-tzeko baizik, eta oso desberdina da. Hizkuntzaren alorrean, gauza bat da hautematea eta beste gauza bat da ekoiztea. Beraz, nik esan dudana, jakina delako gure alorrean, haur guztiek hizkuntza guztietan existitzen diren bereizkuntza fonetikoak sumatzeko gai izanda jaiotzen direla izan da, eta sei-zortzi hilabete betetzen dituztenean, inguruko hizkuntzan edo hizkuntzetan erabilgarri ez diren hizkuntzak sumatzeko gaitasuna galtzen dute.

Jendeak, oro har, haurrak ezer jakin gabe jaiotzen direla eta pixkanaka-pixkanaka ikasten dutela uste du; baina haurrek ez dute horrela ikasten, ikasketa berez ez da jendeak uste duena, ez da zeroari gauzak eta gauzak gehitzea. Berez, esparru bat daukagu eta horretatik, baliagarri ez zaizkigun aukerak ezabatuz joaten gara. Hizkuntzaren alorrean, fonologiaren garapenean hori nabarmen ikusten da. Adibide gisa, Japonian jaiotzen diren haur txikiak ederto bereizten dituzte [r] eta [l] eta beren garpen fonologikoa da bi fonema horien bereizketa nolabait “desikastea”, beraz, japoniako umeak heldu japoniarrek bereizten ez dituzten gauza fonetikoak bereizteko gai dira, eta guri berdin gertatzen zaigu gure inguruan dauden hilabeteko haurrekin.

—Deigarria da, komunikabideetan azaltzen diren atzerritar batzuek zein ondo ikasten duten gure hizkuntza, hemengoak direla pentsatzeraino, eta hemengo askok euskara ikasteko ahaleginak egin eta gai ez izan, zergatik dela uste duzu?

—Badira hemengo hizkuntza ikastea asko kostatzen zaien atzerritarrak eta era berean, badira hemengo hizkuntza oso ondo ikasten duten bertako herritarrak. Beraz, nik ez dut uste bereizketa esanguratsurik dagoenik atzerritarra izan ala ez izatearen artean. Badago jendea bigarren hizkuntza bat ikasten duena, eta beste batzuk ez. Zergatiari dagokionez, bizitzako faktore askori zor

### “Elebitasuna gauza arrunta da; horregatik, hain zuzen ere, komeni da jakitea nola funtzionatzen duen”

zaio, motibazioari, seriotasunari... baina nik ez dut uste, oro har, atzerritarrek hobeto ikasten dutenik euskara eta hemengoek, oro har, okerrago. Gerta daiteke, agian, munduan badirela herrialde batzuk garrantzi handia ematen diotenak hizkuntzari.

—Uste duzu benetan posible dela, hizkuntza bat baino gehiago guztiz menperatzea?

—Nire ustez, bi hizkuntza guztiz garatzea posible da eta badira aldi bereko elebidunak, eta hizkuntza biak dominatzen dituztenak. Izan ere, badakigu elebidun hauek mota batekoak direla eta beste elebidunak beste mota batekoak eta euren burmuinekin hizkuntzaren errepresentazioak guztiz desberdin egiten dituztela, beraz, bai menpera daitezke.

### “Haurrak hizkuntza guztietan existitzen diren bereizkuntza fonetikoak sumatzeko gai izanda jaiotzen dira”

—Zergatik da hain garrantzitsua elebitasuna barru-barrutik ezagutzea?

—Nire ustez, gizarte elebidun batean bizi garenontzako eta beti ere, nire iritziz, hizkuntzalaria naizen aldetik eta hizkuntza interesatzen zaidan aldetik, berez elebitasunari buruzko jakinmina sortzen zait eta beraz, jakinmin hau asetzea elebiduna den gizarte batentzako komenigarria dela iru-

ditzen zait. Hau da, elebitasuna gora eta elebitasuna behera ibiliko bagara nire ustez, elebitasunak dituen hamaika aurpegiri buruz zenbat eta gehiago jakin hobeto. Izan ere, guk gure ikerketa taldean ikertzen duguna ez da elebitasunaren aurpegi bakarra horietako bat baizik eta nik uste dut, gurea bezalako gizarte batean elebitasunaren ikerketak estrategikoa beharko lukeela

izan. Honen zergatiari dagokionez, gure gizarte elebiduna delako.

Are gehiago, jendeak uste duenaren kontra, elebitasuna eta eleaniztasuna, munduan, gizakion artean egoerarik arruntena da eta beti izan da horrela. Beraz, elebitasuna ez da gauza bitxia, arrunta baizik; horregatik hain zuzen ere, zer den eta nola funtzionatzen duen jakitea komeni dela iruditzen zait, batez ere, gauzak jakinaren gainean egiteko eta ez erdi uste eta ustekizunen gainean funtsatuta.

—Gure hizkuntza gal dezakegula irakurri nuen behin, denborarekin berreskuratzeko aukera dago? Zer da zehazki afasia?

—Bai. Eskolatik eta abar barneratuta daukagu hizkuntza nonbait bizi den miasma baten antzeko zerbitu dela, baina

ez da horrela, hizkuntza gizakioi garatu zaigun gauza bat da. Zuk afasia global bat baldin baduzu, eta hizkuntza ekoizti ezin baduzu ez da hizkuntza galdu duzula. Hizkuntza zegoen burmuineko zatitxo batean arazo bat dagoelako da. Odol kolpe bat edo trauma izatea gerta daiteke; beraz, hizkuntzak ez du funtzionatzen. Adibide bat jartzearen, besoko

hezurra apurtzen badugu denboraldi batean ezin izango dugu besoa mugitu, baina horrek ez du esan nahi besoa galdu dugunik.

Besoan patologia bat izan dezakegu, bai anputazioa, bai hezurra edo atzamar apurketa... eta horietatik batzuk besoaren funtzio osoa eragozten dute. Beste zauritxo batzuek ordea, besoa zailtasunarekin erabiltzea eragin diezagukete; beraz, analogia hau hizkuntzara eraman dezagun, eta antzeko zerbitu gertatuko da.

Afasia trauma baten ondorioz edukitzen dugun hizkuntzaren kaltea da, ictus bat daukagula edo odol kolpe bat dela, besoa kaltetzen den bezala, burmuinaren parte bat kalte daiteke; beraz, horrek ez du esan nahi hizkuntza galdu dugunik, egoeraren arabera izango da. Sekulako zuloa badaukagu aldiz, agian guztiz gal dezake-

zu; argi izan, galtzen badugu ezingo dugula berreskuratu.

Batzuetan, afasiak izaten direla, burmuinean hizkuntzaren erabilera nolabait eragozten duen trauma bat edukitzea gerta daiteke eta beraz, mutu gera gaitzke, baina kasu honetan, ez dugu hizkuntza galdu; agian arazo hori konpontzen denean, hezurra konpontzen den bezalaxe, gure

### “Afasiaren patologia trauma baten ondorioz eduki dezakezun hizkuntzaren kaltea da”

hizkuntza berriro erabiltzen has gaitzke.

Afasiak batzuetan oso lokalizatuak daude, atzamar txiki baten punta bati eragiten dioten modukoak; beraz, oro har, gure hizkuntza ondo erabil dezakegu,

baina hitzen bat galdu dugu. Hizkuntza zapuztu da; zapuzte horren nondik-norakoan arabera, berreskura dezakegu edo ez; badago jendea afasia kronifikatu batean gelditzen dena.

—Euskal Herrian dugun hizkuntza egoera arrunta da munduko beste batzuetan?

—Elebitasunaz ari bagara, zeharo arrunta da munduan; izan ere, elebidun gehiago

dira munduan, elebakarrak baino; oro har, munduko populazioa kontuan hartzen badugu. Elebakarra izatea da arrunta ez dena. Beraz, alde horretatik, gure egoera guztiz arrunta da. ◯

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
 Kalea & zenb.....Herria.....  
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
 Kontu zenbakia (20 digitu).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Urte Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tf. 94 491 13 37





# Mémoire

Kongoko Errepublika Demokratikoan jaio zen Sammy Baloji duela 31 urte. Fotomuntaketez baliatuta, tamaina handiko argazkietan irudi historikoak eta garaikideak nahasten ditu. Egun zutunik dirauten belgiar aro kolonialeko meatzetako tipologia arkitektonikoen hondarrak, meatzari esplotatuen antzinako argazkiakaz konbinatzen ditu. Mémoirek hausnarketarako bidea irekitzen du, esplotazioak markatutako gizartea eta boterearen egituren lekukotzagaz. Balojik proiektu artistiko askotan eta nazioarteko jaialdietan parte hartu du. 2008an bere argazkiak Arriluzen ikusi genituen, GETXOPHOTO jaialdian.

Argazkiak: **Sammy Baloji**









I

# Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

## Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

# María Jesús

## ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

HARTU TXANDA

Alangobari 10  
Tf. 94 491 08 21  
ALGORTA



# GAVRKO

GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5, ALGOR-  
TA

[zinema]

## Alegiazko zinema Bilbon

### XV. FANT zinemaldia maiatz hasierarako antolatu dute aurten



2009ko FANT jaialdiaren horma-irudia

**Bilboko** Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak 15. urtez antolatuko du zine fantastikoari begirako jaialdia. Maiatzen 3tik 10era egingo den FANT zinemaldia iragartzen duen horma-irudiari begira, *“Apokalipsiak bere erdigunea Bilbon duela dirudi, konkretuki, Bailen kaleko etxeorraztean, Abando geltokiaren ondoan. Meteoritoek kaleak zeharkatzen dituzte leberketak eraginez eta eraikin klasikoak erdi jausita dago, arrisku biologikoaren ikurragaz...”*. Antolatzaileen esanetan, *“irudia benetan da zirraragarria eta genero bonetan nagusi diren gaiakaz jolasten du. Anabasa nagusi-*

*tzen den etorkizun hurbilaren Distopia edo utopia, oraingoan gertuago dagoen inguru ezagunera datorrigu”*.

Lehiaketako sail ofizialean aurkeztuko diren filmak lehenengoz emango dira Bilbon eta Alemania, Espainia, Frantzia, Danimarka, Belgika, Erresuma Batua, Argentina, Mexiko eta AEBetatik heldutako lanak izango dira. Aurten sail barri bi estreinatuko ditu zinemaldiak: Gore, B

### «Zine fantastikoko filmak, mahainguruak, kontzertuak, menuak e.a.»

Saila eta auzo zinematiko saio bikoitzei gorazarre egiteko asmoz jaiotzen diren *Grindhouse* saila; eta gauzatu ez diren filmen aurre-emaldiak eskaintzen dituen *Teaserland* saila. Horiez gainera, ohi legez, bestelako ekitaldiak ere prestatu dituzte, berbarako: Bosco el Tosco (Azkena aretoa, maiatzak 5, 22:00) eta Chrome Hoof (Kafe Antzokia, maiatzak 7, 21:30) taldeen kontzertuak, sareko film laburren lehiaketako lan-aukeratuen Nontzefilm Gaua emanaldia, Ambigu gazte-localean (Done Bikendi kalea) egingo diren zine-mahainguruak eta keinu zinefiloak atondutako FANT Food menuak eskainiko dituzte. Emanaldiak Capitol zinemetan eta San Frantziskoko udal zentroan izango dira. ◯

Informazio gehiago: [www.fantbilbao.net](http://www.fantbilbao.net)

## Subversion X doinu, irudi, letra

### Ezkerraldeko punk-rock taldearen ibilbidea jaso dute disko-aldizkari batean



Subversion Xeko taldekideak

**Ziurrenik** han eta hemen, kale bazter ia denetan irakurritako pintaden bitartez izango zuten asko eta askok ezkerraldeko punk-rock taldearen barri. Santurtziko Subversion X taldeak orain dela hamazazpi urte eskaini zuen lehenengo kontzertua eta handik urte bira, 1994an, jaioterrian zuzenean grabatutako lehenengo diskoa plaza-ratu zuten. Estreinako CD hura argitaratu zutenetik urte bete eskas pasa zela kaleratu zuten bigarren lana, *Esperando el Final* (Discos Suicidas). Ostean, ezer barririk ekoitzi barik joandako garaia igaro zuen taldeak, 2002ra arte. Orduan entzun ahal

izan ziren hirugarren diskoko, *Vuestros Caramelos Envenenados* (WC Discos), doinu eta kanta barriak. 2004an helduko zen *Recuerdos para vomitar* (Working Class) lana eta 2006an *A pie de asfalto* (Working Class). Eta oraintsu argitaratu barri dute taldearen ibilbidea jasotzen duen *Vivencias Reales* diskoa (kanta barri bi, zuzenean eta entsegue-tan grabatutako abestiak etab.) eta aldizkaria (bitxikeriak, elkarrizketak, koloretako posterra, argazkiak etab.). *“Ezkerraldean izandako lekukotzaren ondarea”* batzen duen lana (9 euro), azken batean. ◯

Informazio gehiago: [www.subversionx.com](http://www.subversionx.com)

## diskoak

**Rudo Bilbao**  
Akatz  
Gor



Bilbotar hauen bigarren lana dugu “Rudo Bilbao”. Hamar kantu barri osatuta dator eta Santanderreko “A-Lone Musik” estudioetan grabatu dituzte, Roberto Sanchezen zuzendaritzapean. Bederatzi musikari hauek reggaea baztertu, eta ska arloan murgildu dira, haize sekzioaren, teklatuaren, eritmo lagunen eta ahozko harmonien laguntzaz.

**Country and City Blues**  
Jose Luis Pardo  
Gaztelupeko hotsak



Jose Luis Pardok bere aurpegi biak erakutsiko ditu “Country and City Blues” disko barrian. Alde batetik, landako bluesa eta bestetik hirikoa, akustikoa eta elektrikoa alegia. Pardok hastapenetan jotzen zituen pieza tradizionalak osatzen dute alde akustikoa. Alde Elektrikoa barriz, egitura esperimentalagoek osatuta dago.

**Aocana**  
Ojos de Brujo  
Diquela Records



Kataluniarrek estudioko laugarren lana argitaratu zuten joan den martxoaren 17an. Aocana diskoak argitalpen bi ditu: 12 kantuk osatutako edizio estandarra eta CD bikoitza, erremixak eta material gehigarria batuko dituen luxuzkoa. Lana kaleratu eta aste betera ekin zion taldeak kantu barriak zuzenean aurkezteko kontzertu birari.

## jaialdia >

### VIII. Azkena Rock

Last International Tour kontzertu eragile ezagunak Gasteizen antolatzen duen rock jaialdia hilaren 14tik 16ra egingo da. Dena prest dago, egitaraua osatuta eta sarrerak salgai (3 egunetarako sarrera 95,41 euro; hilaren 14rako 33,5 euro eta beste egun bietarako sarrera bakoitzak 49,1 euro). Mendizorrotatik 300 metrora dago jaialdiaren gunean, hurrengoek joko dute: eguenean, Hardcore Superstar, Juliette Lewis, The Breeders, The Freeks etab.; barikuan, Electric Eel Shock, The Black Crowes, Soul Asylum, The Zombies, Bad Brains, Eli ‘Paperboy’ Reed, Howlin Rain eta Jon Ulecia & Cantina Bizarro; eta zapatuan, The Toy Dolls, Alice Cooper, Molly Hatchet, Fun Lovin’ Criminals, The Soundtrack of our Lives, Mike Farris & the Roseland Rhythm Revue, Woven Hand, Reverendo Parker etab.

Informazio gehiago:  
[www.azkenarockfestival.com](http://www.azkenarockfestival.com)

## disko barria >

### Tonino Carotone

Tijuana in Blue, zein Cojon Prieto y los Huajalotes taldeetako musikari ohiak bakarkako hirugarren diskoa aurkeztu barri du gurean, *Ciao Mortali!*. Antonio “Toñin” de la Cuesta iruindarraren ezizena da Tonino Carotone eta 12 kantuk osatutako lan barrian ez dira falta letra ironiko, umoretsu eta jai-gogora deitzen duten abestiak, ohiko sustrai mediterraneo-erreko doinuak, tangoa, kataluniar rumba, funky; erromantiko alprojen dantzak... Besteak beste, Manu Chao, Bandabardo eta Gogol Bordelo taldeen kolaborazioak izan ditu disko honetarako Carotonek.

etorri  
eta  
ikus!!

**MORIXA**  
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kaleagaz bat)  
Tf. 94 491 23 79  
Algorta

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Etxera  
eroango dizugu  
gasoleoa

Txartel hau aurkezten  
baduzu 3 euroko  
deskontua edukiko duzu  
zure erosketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00

**GORLIZ IRRATIA**  
Urbe Kostako Irratia 107.3 FM  
www.gorlizirratia.com

[liburuak]

## Euskal ipuinen bilduma

**Xarles Bidegain** euskaltzain etnolinguistak **Laminosine** liburua plazaratu du

**Orain** dela gutxi euskaltzain oso izendatu duten Xarles Bidegain (Baiona, 1947) etnolinguistak leku batetik bestera berba batek erakuts ditzakeen aldaerak aztertzea du jardunbide; hala, han-hemenka ibiltzen da berbak jasotzen, lexikoa osatzeko, eta bide horretan berbaren esangura azaltzeko asmoz-edo hiztunek ipuinak eta mitoak kontatzen dizkiote, labur-laburrean, kontakizunaren oinarri-oinarrizkoa helaraziz. Horrela batu ditu baionarrak *Laminosine* (Elkar) liburuan, labur-labur baina mami osoagaz, 80 bat ipuin. Horietako batzuk "klasikoak" dira, besteak ezezagunak, eta badira beste "biltzailé" batzuek jasotako ipuinak ere, barbarako: Jean François Cer-

**«80 ipuin,  
klasiko eta ezezagun,  
labur eta mamitsu...»**

quand Paueko (1816-1888) ikuskariak, Wenthon Webster euskaltzale eta idazle ingelesak (1828-1907) eta Joxe Miel Barandiaran (1889-1991) antropologoak eta etnografoak jasotakoak.

Liburuaren izenburuak (ipuin batena ere bada) lamiei eta osin bati (urmaela; amildegi handiko leize-putzua, zulo handi bat uretan) egiten die erreferentzia, eta leku-izena ere bada: Oztibarre eskualdean



Xarles Bidegain (Baiona, 1947)

dago (Nafarroa Beherea), Altxurükü herrian, Ibarlako errekan. Bertan bada osin bat, eta oztibartarren ahotik jasotako ipuinak dioenez, *«Erraten da urte oroz jalgitzen direla osin hartarik ogiaren ahotzak- galburua estaltzen duen mintza- Ogia jotén delarik, bihiaren inguruan dagoen luma bezalakoa da ahotz hori... Erraten da ere ahotz hori urrunetik heldu dela, eta segur aski Nafarroatik...»*. Alfabetoaren arabera ordenatu ditu ipuinak, eta Ipar Euskal Herrian jasotakoak bere euskararen eman ditu Bidegainek, Hegoaldekoak "bere batuz" egokitu ditu. Ipuinok "bere laburtasunean" jaso dituzenez, luzeagoak elkartzeko asmoagaz dabil orain etnolinguista. ○

liburuak



**Aulki jokoa**  
Uxue Alberdi  
Elkar

Teresak, Martinak eta Eulaliek herri txiki baten eguneroko bizitza kontatuko digute. Txikitan karraketan korrika ibiltzen ziren; gaur egun, gozotegian hartzen dute kafea elkarregaz egunero. Maitasuna, askatasuna eta gerra lako gai handiak landuko ditu Alberdik lan honetan.



**Ez obeditu inori**  
Mikel Peruarena  
Susaa

Kubako gerratik mainguru itzultako Sotero Mujika bertsolaria Baroja inprimategira joan eta Emile, langile frantses barria eta Alberto ikaslea ezagutuko ditu. Hiruren artean arrisku handiko asmoa darabilte: Maria Cristina erregina erasotzea.

[kirola]

## Onenen artean lehiatzeko

Hastapen itzela izan du **Sopelako Lointek eliteko andrazko txirrindulari taldeak**



Lointek-eko txirrindulariak: Patricia Perez, Judit Masdeu, Cristina Navarro, Virginia del Arco, Chari Rodriguez, Leticia Gil, Maria Diez de Ulzurrun, Belen Lopez, Debora Galvez, Fanny Riberot eta Ana-Marie Smith.

**Joan den** otsail amaieran aurkeztu zuen Sopelako Ugeraga txirrindulari elkarteak emakumezkoen talde barria: Lointek UCI. Hala, UCI mailan (Nazioarteko Txirrindularitza Batasuna) jardungo duten 3 talde izango dira aurten, hirurak Euskal Herrikoak (Espainian ez dago): sortu barri den sopoloztar taldeaz gainera (atzerrian gehien lehiatuko ei dena), Bizkaia-Durango (Panda) eta Debabarrena. Ugeragako presidente Emilio Ramosek azaldu duenez, *«taldea sortu dugu Lointek enpresak enabaki zuelako txirrindulari talde bat bultzatu gura zuela, eta horretarako ipintzen zituzten baldintzak emakumezkoena eta UCI mailakoa izatea izan ziren. Hori ikusita, maila horretan lehia zitezkeen bila hasi eta Espainian zeharreko 9 txirrindulari lortu genituen. Dagoeneko, hasi dira lasterketetan, zelan gainera! Hainbat irabazi dituzte!»*

Taldearen asmoa Frantzia, Italia, Belgika eta Espainiako lasterketa nagusietan aritzea da, Euskal Herri mailako txapelketak, adib. Emakumeen Bira baztertu barik. Lehengo lasterketa Cholet-ekoa (Frantzia) izan zen martxoaren 19an; ostean, Balmase-

dakoa (garaile izan ziren); gero, Sondikan jokaturako Espainiako Kopa (irabazle), oraintsu Milanen korritutakoa etab. *«Taldearen helburua, Espainia eta Euskal Herriko probetan den-dena irabaztea da!»*, dio Ramosek. Emakume Bira amaitu (ekaina) eta egun bira Frantziako Tourrean jardungo du Loli Sansanok zuzentzen duen taldeak, horretarako taldea bitan zatituko

**«Erronka nagusietakoa Italiako Giroan jardutea da; puntuak lortu beharko!»**

dute, eta hori dela eta, beste txirrindulari bi fitxatu dituzte. Ostean, aurrez aurre Italiako Giroa izango lukete, bertan parte hartzea izango ei da taldearen erronka nagusietakoa bat, horretarako UCI puntu nahikotxo lortu beharko dute-eta.

*«Talde barriagaz ilusioz gainezka»* egonik ere, esfortzu handia dela dio Ramosek; hain ere, taldea, maila ezberdinetan dabil harrobiko 25 neskatozentzat, etorkizuneko aukera ere badenez, gogotsu dabilta. ○

Informazio gehiago:  
[www.equipoiclistaugeraga.com](http://www.equipoiclistaugeraga.com)

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA KIZOL moda**



**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.** SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

**Iñigo Iraultza "Iru"** > La Pez antzerki taldeko zuzendaria

“El show de la patera rosa, sasitza batean txorizo otartekoa jatea bezalakoa da”



Iñigo Iraultza

**Zer gertatuko litzaizuke zure antzerki emanaldia itsas bidaiaren batean aurkeztuko bazenu eta bat batean, magoak kutxa magikotik pertsona bat desagertarazi behar duenean ume etorkin batekin topo egingo balu? Horixe da Iñigo Iraultza eta bere taldekideei gertatu zitzaiena duela aste batzuk Malaga aldean. Hau dela eta, antzezkizunaren izena aldatu eta “El Show de la patera rosa”-gaz datoz Leioako Umore Azokara.**

—Ustebako bidaiaren berezia izan zenuten Malaga aldean, “El show de la pantera rosa” aurkezten zeundetela...

—Ez dakigu bidaiaren benetan amestu ez dugun filme bat den ala ez. Bizitza zalantza da eta ametsak amets, antzeko zerbait aipatzen zuten Calderon de la Barcaren.

—Zertan datza hasierako “El show de la pantera rosa” saioa?

—Oporretan dagoen publikoari zuzenduta dagoen ikuskizuna; jarduera desberdinak batzen dituen show-a da.

Alde batetik, Magoa kutxa magikoa-gaz; bestetik, xisteratik aske ateratu gura

duen usoak, konfeti, konfeti asko botatzen duen pantera arrosaz jantzitako aktoreak! Eta nola ez! Parebakoa, ezinbestekoa, errekorra eta geldiezina den karaoke emanaldia. Hori da “El show de la pantera rosa”, gau tematikoa, Jose Luis Morenok edo Jose Luis Rodriguez de la Fuentek “pajaritos por aqui” abesten duten zooa, non Carmen Sevillak eta Ane Igarburuk, oilar jantzita, koroak egiten dituzten. Gora folklore nazionala eta kultur-alzheimerra!

—Leioako Umore Azokan bigarren aldiz parte hartuko duzue. Zer moduzko esperientzia izan da?

—Ederra. Jaialdi hau oso-oso da, mundu osotik etorritako antzerki taldeek parte hartzen dute eta gainera, artistak, teknikariak edo programadoreen artean eztabaidarako guneak sortzen dira. Artea kalean bultzatzea beharrezkoa da, eta adierazpen leku moduan hartzea; nahiz eta askotan, kaleak, adierazpen gune baino, erreprezio gune diruditen, non lotuta eta isilik joan behar dugun, eta gure pentsamenduak poltsatxo batean sartu eta sastarretara bota behar ditugun.

**«Kalea artea bultzatzeko eta adierazpen leku bezala hartu behar da»**

Niri asko gustatzen zait kalean behar egitea, inprobisaziorako leku aproposa iruditzen baitzait.

—Bertoko publikoak eta kanpokoak berdin erantzuten du zuen antzezkizunetan?

—Ez, publikoak leku batetik bestera aldatzen da, eta horregatik, gure obrak ere malguak izan behar dira leku eta ikusle desberdinarengana heltzeko. Askotan inprobisatu eta eszena batzuk aldatu behar izaten ditugu, sortutako energia beste alde batetik doala sentitzen dugulako. Hala ere, normala da batzuetan, jendeak gure ikuskizunaren ostean, haserretuta alde egitea. Erantzun hori oso errespetagarria dela iruditzen zait, baina horrek ez du hainbeste saltzen.

—“El show de la pantera rosa” moldatu eta “El show de la patera rosa” sortu duzue. Zer alde dago?

—Hasierakoa, Algortako kafetegi dotore batean, itsasoari begira, karolina eta arroz pastela jatea bezala izango litzateke, eta “El show de la patera rosa” ordea, sasitza batean txorizo bokata jatea bezala, txakurrak atzetik ditugula.○

**Nik ikastaro berrian hartuko dut parte.\***

\*yo me apunto al nuevo curso.

**AISA**  
Nuevo curso de acogida lingüística para nuevos y nuevas getxotarras

**Getxo**  
LOKALA - KONTABILITASIA

**EUSKARA BIZI**

**INFORMAZIOA**  
LOKALA EUSKARTEK, TEL.: 94 464 62 99 (BILBAO) | LAGIXETA AER EUSKARTEK, TEL.: 94 430 47 34 (ALGORTA) | J. A. ARIÑE EUSKARTEK, TEL.: 94 460 66 71 (ALGORTA)

**HADU**

ERAZKUNAREN ERKIDETZA



**Lander Solozabal** > Aldai Patronatua\*, Karitatea

## “Etxe hau da loron hazitegia”



“Aldai familiaren itsas gaineko patronatu honetan, gure Martin Ugalde parketxoan, karidaderik behar ez daben kalidadezkoa haziak dagoz”

**Eskolan ikasi genduan:** lur azpian dagoan hazitik, landara; eta landaratik, lora. Eta lora sortzeko, haziak gainera, lurra, ura eta eguzkia be behar dira.

Andresen poza, Bapiruken, Irunezag ibili dalako; Jokinek lagunei: “Koikiligaz egin dogu futbolea”; barikuro Gurutzetatik Malakatera datorren Sara berbalaguna, mendi asteburu noiz helduko; ama, noiz egingo dogu pizza tailerra?; bizkaiera taldeko Urepeleko Iban, gurasoei: “Getxon, ‘ikasi’ ‘ikisi’ erraiten da”; iazko Mintza Egunean maitemindu ninduzun, bazkaldu osteko dantzaldian; Xabi eta gaztetxoak, bertso-begiz, bi bal-koiei adi; irakurri eta entzun Uribe Kostako barri guztiak, pantailan eta irra-

tian; Telletxe kaleko euskera hutsezko plaka, bai txukuna!

Lora batzuk dira honeek, ez danak: txikiak eta koloretsuak; etxe, kale, plaza eta tabernetan ikusten, usaintzen, ikutzen dozuezanak.

Eta etxe hau da loron hazitegia. Lur azpian, isila, ez da ikusten. Aldai familiaren itsas gaineko patronatu honetan, gure Martin Ugalde parketxoan, karidaderik behar ez daben kalidadezko haziak dagoz. Urte osoan zehar lurra berotzen, udabarrarian, inoiz baino indartsuago ernaltzeko, kanpora, plazara, herrira, harro urteteko.

Zuek eguzkia: Maitane, Jone, Aritz, Luis, Laura, Liseth, Ainhoa; zuek ura: Josu, Arantza, Andere, Joana, Iñaki, Jagoba,

Saioa. Zeuek danok eta besteok be: zuek eguzkia eta zuek ura.

Eskolan ikasi genduan, eta ez dogu ahaztu behar: lur azpian dagoan hazitik landara, eta landaratik lora. Eta lora sortzeko, haziak gainera, lurra, ura eta eguzkia be behar dira.

\*Aldai Patronatua (Itxasgane) Algortako Karitate kaleko 10. zenbakian dago, Portu Zaharra eta Tellagorri plazan artean. Aldai patronatua Getxoko hainbat kultur elkar-tek du egoitza: Bizarra Lepoan euskara elkar-tea, EGIZU Getxo Euskaldun, Algortako Bertsolari Eskola (ALBE) eta ukberri.net aldizkari digitala, besteak beste. 9. toponimia ibilbidea (XX. mendeko euskararen ibilbidea) etxe honetan amaitzen da. ○

### Toponimoa > Karitatea

**Karitatea (Kalea):**

Kale honi, ez dakigu zergatik del Peligro (arriskuarena) deitu zitzaion Karitate izena jarri arte. Karitate izena Portuko ikastetxe-ko Karitatearen ahizpengatik jarri zen. Barrutia: Algorta (Getxo)

## Kaset

Argi izpia galeria ilunaren amaieran



Alvaro Bermudo, Kaset tabernan

**Amezti kaleko** 3. zenbakian, galeria amaieran, txoko ilunari argitasuna ematen dioten taberna bi daude. Bata, aspalditik herriko gizon-emakumeen topaleku den *Getxo* taberna da. Bestea, joan den urteko azaroan atek zabaldu zituen *Kaset* pub-a; Biak Alvaro Bermudo algortarrarenak dira: “Aurreko jabeen esku egon zen bitartean, *liskar ugari egon ziren galerian. Nire betiko bezeroak etortzeari utzi zioten, giro txarra sortu baitzen. Horregatik, Kaset hartzea enabaki nuen, arazorik ez izateko*”. Pozik dago hartutako erabakiaz: “*Harrera ona izan du. Jendeak botatzen ditu faltan tragoa lasai hartzeko lekuak*”. Gainera, 20 urte pasa dira *Getxo* zabaldu zuenetik eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu tabernara hurreratzen direnak: “*Giro jatorra egoten*

*da, jende ezaguna, herrikoa*”.

Egunero arratsaldeko zazpitan zabal-tzen dute *Kaset*: “*Ahal dudanean, Wifi gunea jartzeko asmoa daukat. Bestalde, proiektore bat ipini gura dut, futbol partiduak, pelikulak eta bestelakoak eman ahal izateko. Horretarako aurreztu behar dut*”. Herriko tabernari gehienak bezala, giroak behera egin duela nabaritu du Bermudok: “*Arrazoi asko dago horretarako. Alde batetik, ohiturak aldatu egin dira, gazteak berandua- go ateratzen dira kalera. Bestetik, botila tza- rrek kalte handia egin digute. Krisia nabari- tu dugu*”. Hala ere, asteburuetan koadrila- gaz egoteko eta dantzatzeko leku bila ibil- tzen direnentzat, badago non aukeratu Amezti kalean. ○

**Amezti 3 galeria, ALGORTA, GETXO**

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR  
**URDAITEGIXA**  
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!  
Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93

**gOZOLABEA**  
**galdaretxe**  
• Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25  
• Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29  
• Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58  
• Telletxe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14  
• Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

**ARTAZA ETXEA**  
jatetxeaa  
• gosariak  
• txuletoia • bakailoa  
• arrain freskoa  
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz  
Erreserbak: 94 463 03 92  
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

**JUAN-MARI**  
Harategia eta txarkuteria  
ARTESANA  
LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25  
**AREETA**

**BASALBO BASERRIA**

**JATETXEA**  
TF./FAX: 94 491 34 91  
MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI -  
GETXO  
basalbobaserria@yahoo.com



**prentsa • aldizkariak**

GETXOKO KIROI PORTUA  
Aritluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

## BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)  
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

## GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

# Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.  
Algorta

\*Tf. erreserbak: 94 460 64 13

## [horoskopoa]

### URA



**(Abenduak 21 urtarrilak 19)**  
Badira aste batzuk oporrak amaitu zirela eta zu oraindino gainditu ezinik, daukazuagaz konformatu behar zara; orain lana eta hiru hilabete barru barru egun batzuk libre izateko aukera izango duzu.

### OTSOA



**(Urtarrilak 20 otsailak 18)**  
Uda datorrela eta, dietan jarri zara, baina sofatik mugitu barik; horrela ezer gutxi lortuko duzu. Hobe kirol apur bat egiten hasten bazara. Askok hobeto sentituko zara zeure gorputzagaz, baita zeure buruagaz ere.

### ADARRA



**(Otsailak 19 martxoak 20)**  
Klaserako lan horrek lar buruhauste ematen dizkizu. Ez arduratu, denboragaz zabilza eta egun bat edo bi, deskonektatzeko, alde batera uzten baduzu gero hobeto eta gogotsuago ekingo diozu.

### AITZURRA



**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
Ustezko lagun on horri zure konfiantza guztia eman eta berak gezurretan ordaindu. Hurrengo batean argi ibili. Hobeto lagun barriak aukeraten badituzu, batzuk ez dira fidatzekoak eta.

### HOSTOA



**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
Ez zenituen Aste Santuko oporrak hartu eta orain egun batzuk libre hartzeko esan dizu nagusiak. Zuk bai zortea! On egin deizula eta aprobetxa itzazu egun horiek bidaia exotikoa egiteko, garai honetan erraz topatuko dituzu aukera merke-merkeak eta.

### EGUZKIA



**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
Urte bi dira ikasketak amaitu zenituela eta orain arte ez duzu taxuzko lanik aurkitu. Lasai hartu, askotan ez da erraza gura dugun horretan behar egitea, baina laster edo beranduago topatuko duzu, ez larritu.

### GARIA



**(Ekainak 19 uztailak 18)**  
Laster ekaineko azterketak dira eta barru hasi behar ikasten, hau nagia! Hilabete bat apunte eta liburu artean ezertarako denbora barik. Ez kezkatu uda ate joka dago, eta uste baino lehen hondartzan egongo zara eguzkitan urtzen.

### LASTOA



**(Uztailak 19 abuztuak 17)**  
Ez izan hain burugogorra eta pentsatu agian zuk erruaren zati bat ere badaukazula. Eztabaida ez du batek sortzen bik baino. Batek ez badu gura ez dago zertan istilurik egon.

### IRATZEA



**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
Aspaldi honetan buruko min larriak dituzu; lana utzi, eta berehala etxera joan eta ohera sartu behar zara, mina arintzeko. Ez duzu uste medikuarenera joateak ondo egingo dizula? Arazoa konpontzea zure esku dago.

### META



**(Irailak 17 urriak 16)**  
Aspaldi honetan umoretsu zabilza, gauzak ondo ateratzen zaizkizun seinale. Lana topatu duzu eta etxea erostea ere pentsatzen hasi zara. Animo, dena ondo aterako zaizu eta!

### HAZIA



**(Urriak 17 azaroak 15)**  
Kontuz korrika egiterako orduan, orkatila okertzeko joera izango duzu eta ezustekorik gura ez baduzu, hobeto lehenago berotzeko ariketa batzuk egiten badituzu.

### NEGUA



**(Azaroak 16 abenduak 20)**  
Aspaldi honetan, diru asko xahutzeko joera duzu eta hilabete amaieran zenbaki gorriak dira nagusi kontu korrontean. Saiatu kontrolatzen, ezin dira gura ditugun gurari guztiak lortu.

# KOSKA

irratia 108 fm

[www.koskairratia.com](http://www.koskairratia.com)



denborapasa

**LUMA aldizkariaren eskutik**

**HITZ GURUTZATUAK**

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2								■		
3										
4				■						■
5		■			■					
6							■			
7	■								■	
8					■					
9			■							
10		■								

**Ezker eskuin**

1. Usteltzen zaila da. 2. Ipar, Euskal Herrian, izotz, horma. Zu familia-  
rra. 3. Diru asko eginak. 4. Baneuka. Ipurdi. 5. Bi. (Errep.) Nahi, boron-  
date. Irlanda 6. Mendebaldean, ganibeta, aiztoa. Sor. 7. Potasioaren  
ikurra. Bizkaieraz, apaiza. Kontsonantea 8. Krudel, gaitzo. India eta  
Pakistango hizkuntza. 9. Du, haiei. Ipar., koxkorra. 10. Ez eme. Suak  
erraz hartzen duena.

**Goitik behera**

1. Ukabilaz jotako ukaldia. 2. Gela  
baten goialdearen barrualdea. (Errep.)  
Begiaren distiraren onomatopeia. 3.  
Bagoi-andan. Patxada, lasaitasun. 4.  
Erririk ez du. Kontsonantea. 5.  
Ohartasunaren etena. Onetsi. 6. Kare.  
Anno Domini. Nor pluralean. 7.  
Gaitasun. Europako diru. 8. Iodoaren  
ikurra. Uki daiteke. 9. Apainketa dotore.  
Joaki da. 10. Zaren horrek. Hobenak.

**Soluzioak**

K	A	V	I	O	K	U	S	■	R	A
V	O	R	R	A	T	■	E	■	D	I
U	D	U	■	R	E	R	K	■	A	N
R	■	A	E	D	A	B	A	■	V	K
R	O	G	■	A	N	V	A	■	L	V
E	I	R	E	■	O	G	■	■	I	I
■	K	I	■	Z	U	■	U	■	N	B
■	A	B	E	R	A	S	T	■	U	A
■	K	A	R	A	R	O	I	■	N	K
■	U	X	■	■	N	■	O	■	I	■
■	I	T	■	■	A	■	L	■	G	■

asmatu eta irabazi > **lagun birentzako bazkaria**



Nor da?

- Goenkalen eman zituen lehen pausoak
- Aizpea Goenagaren iloba da
- Portu Zaharrean pelikula bat grabatzen ibili zen

> Aurrekoaren erantzuna: Xabier Silveira.

> Irabazlea: **Sergio Monedero Albaro (Abanto)**

\*deitu telefonoz: 94 491 13 37

**Argia**

astekariaren hiru  
bilabeteko harpidetza doan



+



**Jolasak eta liburuak**

www.argia.com

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko  
dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

**uk**

gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**



ARENAS KLUBAK UTZITAKO ARGAZKIA

**Bittor Egurrola**

**"ARENAS CLUB" KOPA TXAPELDUNA, 1919**

**Azken zenbakian** guztiok dakigunez, Arenas Club futbol taldearen mendeurrena (1909an sortu zen "Arenas foot-ball Club"; 1912tik aurrera "Arenas Club" eta horrela gaur arte) ospatzeko hainbat ekimen burutzen ari da urte honetan zehar. Baina mendeurrenaz gain, datorren 18an, 90 urte beteko dira (1919-5-18) Errege Kopa txapeliduna izan zela. Partida Madrileko Martinez Campos futbol zelaian jokatu zen Bartzelonaren aurka, eguraldi ederrak lagunduta; emaitza 2-2. Sesumagak sartu zituen Arenaseko gol biak. Luzapenean Arenasek beste hiru gol sartu zituen (Sesumaga, Florencio Peña eta Ibaibarriaga). Azkenean, beraz, Arenas Club 5-2 Bartzelona. Txapelidunordea ere izan zen 1917, 1925 eta 1927an. Koldobika Urrestik (GB), Arenasko idazkariak, 1995ean esan zidan hiruzpalau aretarrek oraindino urtero-urtero ospatzen zutela 1919ko garaipen hura. Bitxia benetan. ○

**Ezkerretik eskuinera:**

Jauregi (atezaina), Felix Sesumaga, Jose M<sup>a</sup> Peña, Jose Arruza, Perico Vallana, "Monacho", Pagazaurtundua, Florencio Peña, Ibaibarriaga, Gumersindo Uriarte, Pedro Barturen.

[aitormenak]

**GARIKOITZ UDABE** > Irrati esataria eta kazetaria

# “Anai-arrebak nirekin albistegiak egiten jartzen nituen txikitan”

Testua: **Maitane Nerekan**



## Defini ezazu zeure burua berba bitan

Alaia eta komunikatzailea; oso zaila da norberaren burua definitzea.

## Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Momentu honetan gertuen bizirik dauzkadanak miresten ditut gehien, asko ikasten dudalako beraiengandik.

## Zer izan gura zenuen txikitan?

Kazetaria, erabat bokaziozkoa da nirea; gainera, irratia egin nahi nuen.

## Zerk ematen dizu beldurra.

Justiziaren izenean egiten diren hainbat ekintzak beldurtzen nau.

## Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

*El nombre de la rosa* filmea asko gustatzen zait. Ez dakit zenbat bider ikusi dudana; horko paperen bat gustura egingo nuke.

## Hautzaroko oroitzapen bat?

Nire lanbidearekin lotuta, gogoratzen dut anai-arrebak nirekin albistegiak egiten jartzen nituenean.

## Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Izurdea; animalia sinpatikoa da eta jende sinpatikoa gustatzen zait.

## Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Bidaiatzea asko gustatzen zait eta zaila egiten zait leku bat aukeratzea. New Yorken pasatako denboraldia oso atsegina izan zen; hiru hilabete eman nituen han eta hiriaren bizimoduak harrapatu egin ninduen.

## Janari gustukoena?

Arrain freskoa parrillan erreta; hala ere, orokorrean jatun oso ona naiz.

## Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Txoko kuttun asko ditut Euskal Herrian. Kostaldeko edozein parte aukeratuko nuke, baina altura pittin batetik begiratuta. ◯

**LABURREAN**— Gauza guztien gainetik irrati gizona da Garikoitz Udabe (Usurbil, Gipuzkoa, 1975). Oraindik gaztea bada ere, 16 urte baino gehiago darama irratian beharrean. Aurreneko bost urteak Euskadi Gaztean eman zituen, Euskadi Irratirako saltoa eman zuen arte. 2004ko irailetik, astelehenetik ostiralera goizeko 12:00etatik 13:00etara entzun daitekeen *Aperitif*a saioa zuzentzen du. Apirilaren 8an 1000 saioa bete zuen *Aperitif*ak eta saio berezia egin zuten “saiobetetzea” ospatzeko. Igor Zalakain sukaldariaren eta Makala DJaren laguntzarekin atera du aurrera saioa Udabek. Irrati esataria izateaz gain, azken urteotan Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultatean irakasle ibili da.

## Ezagut ezazu zure alderik freskoena



*Txikitan ezagutu nuen nire alderik freskoena, baberrun-ale lehor batetik jurtain eder berria sortu zela ibusi nuenen. Biziki eta naturalak aurrera egiten zuten gure harridura eta gozamenerako. Eta orain, horrenbeste urte pasa direnean, zurrara bera sentitzen dit baina Udal Merkatuan oraingoan. Bertan inguru natural batera bainaramate boloreek, usainek, tratu atseginak eta balitatezko produktuek. %100 naturalak eta oso, oso freskoak direlako.*

Eros ezazu zure **Udal Merkatuan**





...lanean gabiltza  
...estamos de obras

**Getxo**  
*berritzen ari da  
se renueva*



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO

www.getxo.net

lanen kokalekua localizador de obras



**Getxo** beritzen ari da zure bizi-kalitatea hobetzeko eta udalerrri biziagoa eta dinamikoagoa egiteko.

**38 egitasmo baino gehiago**, maiztetik aurrera gure herriko ibiltokiak, parkeak, gizarte- eta kirol-instalazioak, eta baita kaleak ere, berritzeko. Beste jardueren artean honako hauek daude: Villamonte eta Aiboa hartzeko bide mekanikoak ezartzea, Areetako eta Arrigunagako kaiko ibiltokiak hobetzea, Erromoko kaleen berrikuntza, Maidaganen Metroa lurperatzea, Getxo Antzokia eraikitzea, Santa Eugeniako gizarte- eta kultura-zentro berria, BiscayTIK proiektua, Ebeandia Gotzaina, Errekagane eta Txabari Zuazo parkeak berritzea, Arrigunagako eta Areetako skate-pistak berritzatzea, etab. Laster, Udalak liburuxka bat bidaliko du etxe guztietara lan bakoitzaren informazio zehatza emanez: deskribapena, kokalekua eta gauzatzeko-aldia.

Aldez aurretik, eragindako trabengatik barkamenak, eta herritar guztion laguntza ere, eskatzen dizkizuegu.

**Mereziko duen ahalegina izango da.**

**Getxo** se transforma para mejorar tu calidad de vida y crear un municipio más vivo y dinámico.

**Más de 38 proyectos** que a partir de mayo mejorarán paseos, parques, instalaciones sociales y deportivas, así como diferentes calles de nuestro municipio. Entre otras actuaciones se encuentran las implantaciones de los accesos mecánicos de Villamonte y Aiboa, mejora de los paseos del Muelle de Las Arenas y de Arrigunaga, reforma de las calles de Romo, el soterramiento del Metro en Maidagan, construcción del Getxo Antzokia, el nuevo centro cívico y cultural de Santa Eugenia, el proyecto BiscayTIK, reforma de los parques Obispo Elxeandía, Errekagane y Txabari Zuazo, las pistas de skate de Arrigunaga y Las Arenas, etc. En próximas fechas, el Ayuntamiento enviará a todos los domicilios del municipio un folleto con información detallada de cada una de las obras, su descripción, localización y fase de ejecución.

Por adelantado pedimos disculpas por las molestias, y la colaboración de la ciudadanía.

**Será un esfuerzo que va a merecer la pena.**

